



 Eikertalde

ARRASATE: Arrasateko Turismo Plana

AURKIBIDEA

I. ATALA: GAINBEGIRATUZ	5
1.- BALIABIDE TURISTIKOEN EGOERA PANORAMA	7
1.1.- ARRASATEKO UDAL BALIABIDE TURISTIKOAK: LEHEN BALANTZEA	8
1.2.- DEBAGOIENA ESKUALDEKO BALIABIDE TURISTIKOAK: BIGARREN BALANTZEA	12
2.- ERAGILEEN BALORAZIOA	14
2.1.- UDAL BALIABIDEEN BALORAZIOA - Matrizea	14
2.2.- ESKUALDEKO BALIABIDEEN BALORAZIOA - Matrizea	16
II. ATALA: HITZ GUTXITAN...	19
3.- DIAGNOSTIKO LABURRA	21
3.1.- ABIAPUNTUA: IBILTZEKE DAGOEN BIDEA	21
3.2.- BALIABIDE TURISTIKO OSAGARRIAK	21
3.3.- ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA: AUKERA HANDI BAT	21
3.4.- ESKUALDEA: OPTIMIZATU BEHARREKO ALIANTZA ESPARRUA	22
3.5.- EUSKADIREN ERDIGUNEA BALIO BEZALA	22
4.- ESTRATEGIAK ETA LEHENTASUNAK	23
III. ATALA: EKINTZETARA...	27
5.- EKINTZA PLANA	29

I. ATALA

GAINBEGIRATUZ...

1.- BALIABIDE TURISTIKOEN EGOERA

Bi maila desberdindu daitezke gaur egungo Baliabide Turistikoaren artean: alde batetik, Arrasate-Mondragón beraren baliabideak, eta bestetik, Debagoiena Eskualdeko Baliabideak.

BALIABIDE PROPIOAK

EREMU HISTORIKO-MONUMENTALAK

- Arrasateko Erdi Aroko Kaxkoa
- Eraikin erlijiosoak
- Santa Agedako Bainuetxea (Gesalibar)
- Unión Cerrajera (bulego eraikina, eskola, langileen etxeak, ermita...)

ONDARE INMATERIAL – KULTURALA

- Etnografia eta Artisansua
- Gastronomía
- Herriko festen Egutegia
- Euskera
- Kultur ekitaldi bereziak

INDUSTRIA ONDAREA

- Kooperatibismoa
- Industrializazioaren historia
- Diseinu industrialia

NATURA ETA TURISMO AKTIBOAK

- Udal parkeak
- Espeleologia
- Eskalada
- Mendi-ibilbideak
- MTB ibilbideak
- Udalatx ekosistema (artadi ozeanikoa)
- Kirol ekitaldiak

ZERBITZU TURISTIKOAK

- Hostalaritza baliabideak
- Hostalaritza parkea
- Turismo enpresak
- Debagoienako (Mankomunitatea) Turismo Informazio Zerbitzua
- Eskualdeko Turismo Bulegoa Arantzazun

DEBAGOIENA ESQUALDEKO UDALERRIEN BALIABIDEAK

NATURA

- Arrikruzeko kobazuloak
- Urkuluko Urtegia
- Aizkorri-Aratz Parke Naturala
- “Vía Verde Ferrocarril Vasco-Navarro”
- Ignaziotar Bidea

MUSEOAK

- Laboratorium Museoa
- Txokolatearen Interpretazio Zentrua
- Memoria Historikoaren Interpretazio Zentrua
- Ibarraundim Museoa
- Gatz Museoa

ARANTZAZU

- Hiru templuen ibilbidea
- Arantzazu Santutegiko monumento multzoa
- Ignaziotar Lurralde

UDALERRI ERAKARGARRIAK

- Oñati
- Bergara
- Leintz-Gatzaga

1.1.-ARRASATEKO UDAL BALIABIDE TURISTIKOAK: LEHEN BALANTZEA

HISTORIA ETA MONUMENTU EREMUAK

Arrasateko Erdi Aroko Kaxkoak forma ortogonalak du eta partzialki kontserbatutako harresi batez inguratuta dago, kaxkoko kanpoko hormei atxikita dagoelarik. Erdi Aroko herribildu honek sarbiderako bere hiru atari zaharrak kontserbatzen ditu: Beheko portala (edo Portalón izenez ezaguna dena), Concepción edo Iturriotzekoa eta Zurgin portala, azkenengo hau da guztietatik zaharrena".

Fatxaden estetika eta horietan kontserbatutako armariak, gehiengoak egoera onean, eta harrizko oinezkoen espaloiak Erdi Aroko kutsu nabarmena eskaintzen dio Alde Zaharrari, arretaz bisitatu eta behatzeko merezi duena. Aipatzekoa da ere Alde Zaharreko kale egituraren kontserbazio egoera ona, bai orubeen urbanizazioaren ikuspegitik, bai kaleen, kontoiaren eta estolderiaren ikuspuntutik ere. Gainera, alde zaharra eta baita bere arrabalen zati bat ere, ibilgailu trafikoa itxita dago.

Alde Zaharraren barnean, Plaza Nagusian, bata bestearen parean kokatutako udaletxea eta San Juan Bautista Parrokia miresgarriak kokatzen dira. Lehenengoa XVIII. Mendeko barroko-rokoko estilokoak dira, Martin Carrera arkitektoarenak, berantiar barroko garaiko euskal arkitektura zibilaren paradigma hain zuzen.; udalerriko armen armari batekin eta harrizko pieza bakarrean landutako eskailera multzoa bezalako elementu interesgarriekin. Parrokia gotiko garaikoa da, kanpandorra ez ezik (XIII-XIV. Mendea), honako hau 90. Hamarkadan berritua izan zen zutabe klasikoaren gainean. Ganga oso altuak eta leiho gotikoak ditu eta baita xurrutarriak kanpoaldean.

Jauregiek eta etxondoek –garai desberdinekoak badira ere– herribilduak zuen itxura erakusten dute. Eraikin esanguratsu horien artean aipagarriak dira Aranguren Jauregia edo Monterrón izenez ezaguna dena, Andikano Zelaa Etxea, Okendo Jauregia, Andikano Loiola Jauregia edo Bañez de Artazubiaga jauregia besteak beste.

Arrasateko Alde Zaharra

- Udaletxea
- Jauregiak, Atariak eta Etxondoak:
 - Bañez de Artazubiaga Jauregia
 - Andikano Zelaa Etxea
 - Okendo Jauregia
 - Andikano Loiola Jauregia
 - Monterrón Jauregia
 - Zurgin Kantoi, Kontzesino eta Beheko Kantoia Atariak
- Izaera propioko auzoak:
 - Bedoña
 - Garagartza
 - Udala
 - Meatzerreka.
 - Musakola
 - San Andrés

Eraikin erlijiosak

- San Juan Bautista Parrokia
- Monasterio de San Francisco Eliza
- Santa Eulalia de Bedoña Eliza
- San Valerio Ermita
- Gesalibar eta Garagartzako Elizak

ONDARE INMATERIAL – KULTURALA

Herriko festak ere tradizio eta aisiaren seinale, erakargarritasun puntu nabaria dute. Horien artean aipagarriak dira Santa Ageda, San Juan, Maritxu Kajoi, San Nikolas eta Santamasak besteak beste. Festa horietaz gain, jardunaldi gastronomikoak eta baserritar feriak ere ospatzen dira. Horiek, nolabaiteko kutsu herrikoia ematen dio Arrasateri, antolatzen diren ekitaldi kultural singularrekin batera: esaterako, eskualderako erakargarria den Akordeoi Festibala (nazioarte mailan) edo Debagoienako Gastronomia Jardunaldiak.

Ondare ez-materialaren artean aipatzekoa da Doke jokua, Arrasateko praktika singularra, elkarte gastronomikoen arteko lehiaketa ospatzen da eta irabazleak ondoren Udaletxearen aurka jokatzen du, galtzaileak sardinada bat antolatu edo gonbidatu behar duelarik.

Gastronomia arloan aipagarria da “Arbigaixe” (arbiaren zutoin gaztea) tokiko gastronomiaren berezitasuna. Tradizioa da baita ere “Karapaixo”, ezkututzen duen sinbolismoa dela eta arrautza eta txorizo ogi zati baten irudia bakarrik, baizik eta zaintza eta babesaren sinbolismoa, izan ere, aitabitxiak eta amandreak ziren seme eta alaba-bitxie garimuean oparitzen zizkietenak.

Arrasatek bestetik, erakusketa iraunkor bat zuen –“*Dinbi, Danba, mailuaren golpeak. Bixente Barandiaran, Arrasateko azken heroia*”- errementari eta altzairu industriaren bitartez herriko historia erakusten duena (gaur egun itxita).

Herriko Festen egutegia

- Santa Ageda (02/4 eta 5)
- Sanjuanak (06/26)
- Maritxu Kajoi (10/lehenengo ostirala)
- San Nikolas (12/06)
- Santamasak (12/22)

Etnografia eta Artisautza

- Dinbi Danba Erakusketa iraunkorra

Gastronomia

- Debagoienako Gastronomia Jardunaldiak
- Baserritarren Azoka

INDUSTRIA ONDAREA

Seguruenik, Arrasate definitzen duen elementu garaikide garrantzitsuena aski ezaguna den industria izaera da, kooperatibismoari lotuta udalerriko motor ekonomiko eta sozial garrantzitsuena delarik.

Gaur egun arte ez da turistikoki ustiatua izan, bere potentziak eta ospeak (era espontaneoan sortzen dituen bisitetan ikusi daitekeenez), garapenerako eta formalizatutako ustiapenerako aukerak irekitzen ditu garrantzizko baliabide turistikoa bezala.

Gaur egungo kooperatibismoaren aurrekariak metalurgian oinarritzen dira. Gerora, XIX. mende bukaerako garapena, burdingintza eta sarrailagintza artikuluetan oinarritutako industria ekoizpen modeloen adopzioarekin eta eraikin, instalazio eta orokorrean garai hark utzitako ondarearekin gauzatu zen

NATURA ETA TURISMO AKTIBOA

Arrasate ingurumen naturala du, Monterrón eta Santa Barbara bezalako parkez osatuta. Hauek, irisgarritasun errazeko eta aisialdirako espazio zabalak eskaintzen dituzte herrian bertan. Arkeologia altxorrek ere aipatzekoak dira: Lezetxiki, Kurtzetxiki y Anporreta, ezagunenen artean. Gainera, Udalatx eta Murugain mendiek, bere bidezidor eta ibilbideekin, mendiko turismo aktiborako aukera paregabea eskaintzen dute, bai oinez baina baita bizikletaz ere. Horretaz gain, eskalada eta espeleologia jarduerak ere egin daitezke eskalada eskolaren bitartez.

Beasaideko gailurra, 564metroko altueran, Udalatx eta Amboto artean; "Euskal Herriko 0 km" bezala ezaguna den edo hiru probintziek bat egiten duten puntu zehatza. Desagertutako Mendizaleen eta "Bizitzaren Iturria" -Yoshin Ogata japonieraz- monumetuak aurkitzen dira bertan.

Arrasateko ibilbideak turismo herrikoi aktiboko eskaintza txiki batekin eta natura eta turismo aktiboari lotutako hainbat ekitaldirekin (Arrasate-Udalatx) osatzen da.

Kooperatibismoa

- Garatu beharreko Proiektu Estrategikoa

Industrializazioaren historia

- ELMA Fabrika
- Meatzerreka
- "Etxe txikien" multzoa
- UCEM eraikin multzoa:erlojuaren eraikina, ikastunen eskola, bulego eraikina (gaur egun Mondragon Hotela)
- San Isidro Kapila (UCEM obra soziala)
- Gesalibarko Bainuetxe zaharra

Diseinu industrialia

Udal Parke eta Mendiak

- Monterrón Parkea
- Santa Bárbara Parkea
- Mendiak: Udalatx; Besaide; Kurtzetxiki; Murgain, Anporreta

Espeleologia

- Lezetxiki; Kurtzetxiki; Anporreta; Oterreta, Lezetxe, Kobatxo

Mendi ibilbideak

- Udalatx Mendia
- Gipuzkoako itzulua GR GI -121
- Erregebide-Bedoña PR-GI 91 (3:25h/11km)
- Udala-Besaide PR-GI 96 (2:30h/6,4km)
- Camino Ignaciano PR GI-106
- Anporretako Bira, Burdinaren bidea PR GI-205
- Murugain, Dragoiaren bidetik PR GI 206
- Tour de Kurtzetxiki SL GI 42
- Elorrioko Erregebidea

BTT ibilbideak

- Btt ibilbide aukera zabala

Kirol ekitaldiak

- Udalatx mendi lasterketa
- Rugby jaia
- San Isidro MTT
- BESAIDE AIBA mendi martxa
- UDALA kotxe igoera
- Enduro bizikleta txapelketa
- BESAIDE MondranBike mendi bizikleta martxa
- DORLETAKO AMA ziklo kros proba
- Santamas krosa
- Pilota profesionalak
- Arrasate Pilota taldearen gabonetako torneoa
- Ointxe saski gabonetako torneoa

ZERBITZU TURISTIKOAK

Arrasatek 283 txikizkako merkataritza establezimenduz osatutako parkea du, eta 117 ostalaritza establezimendu, horien artean 26 jatetxe eta janari postu eta 91 taberna. Dena den, ez da erreferenterik edo establezimendu traktererik bereizten.

Ostatuari dagokionez, 3 hotel, 2 pentsio eta agroturismo batek osatutako eskaintza zabala du, guztira 161 gau/egun igarotzeko kapazitatearekin.

Turismoa eta aisialdiari lotutako enpresak ere badaude; Menditxit enpresak mendien igoera, arrolien jaitsiera, erraketekin ibilbideak eta trabesiak, baita kurtso desberdinak estatuko eta euskal lurraldeetako hainbat puntutan.

Arrasatek ez du informazio puntu edo/eta turismo bulegorik, nahiz eta bisitarienezako zerbitzu hau eskualdeko bulegoaren bitartez gauzatzen den.

Hotel baliabideak

- Hotelak:
 - Mondragón Hotela: 78 plaza
 - Arrasate Hotela: 22 plaza
 - Santa Ana Hotela: 25 plaza
- Pentsioak:
 - Uxarte: 10 plaza
 - Urizar: 14 plaza
- Landetxea:
 - Artega 12 plaza

Hostalaritza parkea

- 26 Jatetxe
- 91 Taberna

Empresas turistikoa

- Menditxik Mendi eta Arroilen Gidak
- Iraganeko Oinatzak

Debagoienako Turismo Informazio Zerbitzua

- Debagoienako Mankomunitateko bulegoan
- Eskualdeko Turismo Bulegoa Arantzazun

1.2.- DEBAGOIENA ESKUALDEKO BALIABIDE TURISTIKOAK: BIGARREN BALANTZEA

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Arantzazuko Santutegia berez euskal turismoaren erreferenteetako bat da, erakargarritasun puntu bat eskualde eta probintzia mailan; sinbolismoz beteta euskal artearen aparteko elkargunea da (Oteiza, Chillida, etab...), eta erreferente erlijioso eta espirituala. Hiru tenpluen ibilbidearen barruan, bere edertasunak eta berezitasunak Arantzazu eskualdean gehien bisitatzen den tokia egiten du.

Arantzazuko Santutegia

- Hiru Templuen ibilbidea
- Ignaziotar Bidea/ Ignaziotar Lurraldea
- Erromesaldia: Arrasate-Arantzazu (PR GI 106)

KULTURA-MUSEO BALIABIDEAK

Debagoienako eskualdea mota derberdineko museoz hornituta dago. Horien artean, sortu berria den zientzian eta ezagutzan eta Elhuyar anaien aurkitutako Wolframioaren jazoera garrantzitsua oinarritutako Laboratorium Museoa (Bergaran); Txokolatearen Interpretazio Zentrua (Oñatin), Ibarraundi Museoa (Eskoriatzan) eta Gatz Museoa (Leintz Gatzagan).

Kultura-museo baliabideak

- Laboratorium Museoa
- Txokolatearen Interpretazio Zentrua
- Ibarraundi Museoa
- Gatz Museoa
- Elgetako Memoria Historikoaren Interpretazio Zentrua

UDALERRI ERAKARGARRIAK

Debagoienako eskualdean hainbat udalerrri erakargarri daude, bisitarako alde zahar eta udaletxea, jauregiz edo unibertsitatez (Oñati eta Bergarako esaterako) osatutako kultur balore handiko eraikin enblematikoez inguratuta.

Udalerrri erakargarriak

- Oñati
 - Alde Zaharrak
 - Unibertsitatea
- Bergara
 - Alde Zaharra
 - Real Seminario Patriótico Bascongado de Bergara
- Leitz-Gatzaga :
 - Alde Zaharra
 - Dorletako Santutegia


NATURA BALIABIDEAK

Debagoiena eskualdean hainbat natura baliabide aurki daitezke. Horien artean, aipatzekoak dira Arrikruzteko Kobazuloak edo Aizkorriko Parke Naturala – Aratz eta Urkuluko Urtegia, aisialdirako jomuga bezala ingurumen bete-betean. Gainera, herri nahiz probintzia mailako ibilbide sare zabala maila desberdinetakok, seinalezatuak eta parkez eta merenderoz inguratuta.

Natur Baliabideak


- Arrikruzteko Kobazuloak
- Urkuluko Urtegia
- Udalatx ekosistema
- Aizkorri – Aratz Parke Naturala
- Mendizaletasuna eta mendi-ibilbideak (Karakate- Elosua Trikuharrien Ibilbidea, Vía Verde Vasco-Navarro)

ESKUALDEKO BALIABIDE TURISTIKOAK -DEBAGOIENA- Isokronak Planoa



2.- ERAGILEEN EBALUAKETA

2.1.- UDAL BALIABIDEEN BALORAZIO - Matrizea




Arrasateko Baliabide Turistikoaren inguruko **ebaluazio saioan parte hartutako aktoreek gauzatutako** sintesi Matrizean, 5 talde tematiko handi edo familia planteatzen dira¹.

- ➔ Lehenik eta behin, **balio turistiko altua eta ustiapenerako zailtasun baxua duen eszenatoki ezinhobean**, Alde Zaharrak eta eraikin berezi eta erlijiosoek osatutako binomioa, batez ere San Juan Bautista eta Udaletxea. Bigarrenik, “pakete berdea” edo turismo balio altuari lotutako eskaintza identifikatu daiteke; Alde Zaharrari aitortutako balioa baino baxuagoarekin, baina ustiapenerako zailtasun baxuarekin, izan ere oinez edo bizikletaz iritsi daitezkeen bideak eta udal parkeak dagoeneko garbiak daude eta bisitatu daitezke; hortaz ez dute egokitzapenik behar. Koadrante berdinean, hirugarren taldea gastronomia eta festa egutegia bezalako baliabide ez-materialak osatuta dago, etnografia eta artisautza eta ekitaldi bereziekin batera. Turismo mailan ustiapen zailtasun erdi-baxua eta balio turistiko ertainekoa.
- ➔ Bestetik, **balio turistiko altukoa baina aldi berean ustiapenerako zailtasun altuarekin** industria ondarearekin erlazionatutako elementuekin egiten dugu topo. Horrela, Kooperatibismoa (balio turistiko altuagoarekin baino garapen eta ondorengo ustiapen turistikorako zailtasun maila handia), nahiz industrializazioaren Historia (balio altuarekin baina ustiapenerako zailtasun erdi-altuarekin), turismo mailan baliabide propio garrantzitsu eta erakargarri bezala identifikatu dira, bere ustiapenerako esfortzua eskatzen dutenak. Koadrante honetan bertan (urdina), Arkeologia kokatzen da, hau da, Leize-txiki edo Kobahandi kobazuloak. Balio turistiko ertaina dute, aurreko bi elementuena baino baxuagoa eta ustiapenerako zailtasun altuarekin, bisitatu ezin daitezkeen elementuak baitira, egokitzapen eta inbertsio handia eskatzen dutenak alegia.
- ➔ Azkenik, **balio turistiko baxua eta ustiapenerako zailtasun baxuko** koadrantean, elementu ez-materialak aurki ditzakegu, adibidez, Euskara eta Diseinu industrialak. Biak balio turistiko baxukoak bezala baloratuak izan dira eta ustiapenerako zailtasun erdi-altua; horren ondorioz, bere garapen turistikoa ez da erakargarria.

¹ Baliabide Turistikoaren balorazio bilerara agertu ziren agenteen balioespen, ekarpen eta iradokizunak soilik jasotzen dira

2.2.- ESKUALDEKO BALIABIDEEN BALORAZIO- Matrizea



Debagoiena eskualdeko Baliabide Turistikoaren ebaluazio Matrizean, izaera turistikoaren foku argi bat igartzen da, Ignaziotar Lurraldea izendapenaren barruan biltzen delarik.

- Balio turistiko altua eta ustiapenerako zailtasun baxua duen eszenatoki ezin hobearen koadrantean, Arantzazuko Santutegia dago, balio turistiko altua eta Arrasate udalerririkiko konexio potentzial altua duena. Honako hau, Ignaziotar Bidea eta Hiru Tenplu Ibilbideari lotuta dago, balio turistiko baxuagoarekin eta aurrekoa baino lotura altuagoarekin. Baliabide horiei, Natura eta Turismo Aktiboa gehitu behar zaizkie, Gaztaren Ibilbide Zirkularra eta Artzainbideaz gain besteak beste; eta Ignaziotar Lurraldeko, Oñati, Bergara eta Leintz Gatzagako Alde Zaharrak. Horrek guztiak, Tierra Ignaciana bezala ezaguna den ekosistema osatzen du, espazio berdinean eta izaera paregabeko hainbat baliabide eskaintzen dituelarik.
- Bigarren koadrantean, balio turistiko altuarekin eta konexiorako potentzial baxuarekin, Urkuluko Urtegia eta Arrikruzeko Kobazuloak daude (balio turistiko altuarekin), baliabide turistiko erakargarriak dira, beina Arrasate udalerririkoko koketatzeko zailtasunarekin.
- Hirugarrenik, balio turistiko baxua eta konexiorako potentzial baxuaren koadrantean, eskualdeko museo eta kultura baliabideak aurkitzen dira, etnografia eta artisautza ondarea, Gatz Museoa, Laboratorium edo Euskal Memoriaren Interpretazio Zentroarekin batera besteak beste. Era berean, gastronomia Nekazaritza ekologikoari eta produktu lokalei lotuta, balio turistiko baxuko eta konexiorako potentzial baxukoak bezala identifikatzen dira.

II. ATALA

HITZ GUTXITAN...

3.- DIAGNOSTIKO LABURRA

3.1.- ABIAPUNTUA: IBILTZEKE DAGOEN BIDEA

Arrasate-Mondragonen, orain arte Euskal Herriko industriarako udalerrri erreferentea izan dena, turismoa elementu marjinal bat besterik ez da, bere kulturarentzako erlatiboki arrotza, bakarrik delegazio terminotan landuta eskualdeko instituzioen bitartez.

Debagoienan, Arantzazu eta bere inguru naturala eta honen berehalako erakargarritasuna dira turismoaren erreferentzia fokua. Eskualdean, bere osotasunean, udalerrietako foku batzuetan egiten ari diren aurrerapenen gorakada izan arren, jarduera turistikoa ez da oraindik, beste zonalde batzuekin alderatuta, bultzada ekonomiko nabarmen baterako elementu esanguratsua; ez du ezta eskaintza egituratuko duen ardatz edo izaera partekaturik ere.

3.2.- BALIABIDE TURISTIKO OSAGARRIAK...

Udal ikuspegitik herriko erakargarritasun puntuak ugariak izanda ere, (ikus 1 kapitulua), ebaluazio objektibo eta hotz batetik, gutxiago dira euren kabuz kanpora zuzendutako erakargarritasun gaitasun hori dutenak. Hortaz, interesgarria izango litzateke moldatu edo egituratu daitekeen eskaintza “osagarria” edo lagungarria” izatea...

- udalerrriko benetako elementu traktoreei laguntzeko, dauden kasuan (3 puntua)
- existitzen den eskualdeko eskaintzarekin loturak eta sinergiak ahalbidetzeko (5 puntua)

3.3.- ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA: AUKERA HANDI BAT

Nazioarte mailan lortutako izen ona eta ekosistema kooperatiboan lortutako garapenak Arrasate_Mondragonen (Euskal Herriko enpresa kooperazioaren egoitza nagusia, industria, finantza, banaketa komertziala, hezkuntza eta ezagutza... jarduerekin); eta berezko bereizgarritasun soziala dira mobilizazio turistikorako potentzial handiko erakargarritasun puntuak.

3.4.- ESKUALDEA: OPTIMIZATU BEHARREKO ALIANTZA ESPARRUA

Eskualdeko erakargarritasun puntuen esparrua, Arantzazu bezalako erreferentzia puntua eta interes nahikoa eta izaera anitzeko baliabideen abaniko zabala (ikusi 1 kapitulua), 30 minutu baino gutxiagoko eremu geografiko batean, Arrasateko eskaintza integratu eta sinergiak sortzeko egoera ezin hobea da.

Arrasaten elementu motor baten existentziak planteamendu horri lagunduko lioke, izan ere, eskualdeko eskaintzaren zati handi bat lurraldeka egituratzea ahalbidetuko zuen.

3.5.- EUSKADIREN ERDIGUNEA BALIO BEZALA

Arrasateren kokapen geografikoak, EAEko geografiaren erdian; Gasteiztik 30 minutu baino gutxiagora eta Bilbo eta Donostiatik 45 minutura, eta iberiar penintsulako ipar-hego ardatz gurutzeak, bisitarako plataforma ezin hobea eskaintzen du. Batez ere:

- Hiru hiriburuen zentralitateak erakarpina turistarentzako
- Euskal Herri osoko txangolariarentzako eta erlatiboki zabala den berezko lurralde koroa

4.- ESTRATEGIA ETA LEHENTASUNAK

Eskualde eta udalerrri mailako baliabide turistikoaren erretratutik hasita; potentzia eta ebaluazio zailtasunaren ikuspuntutik aktoreek eurek gauzatutako ebaluaziotik hasita; eta baliabide desberdinak irudikatzen dituzten eraldaketarako potentzialetik hasita, etab, kudeaketarako ondorengo estrategia ezarri daiteke:

- **Kooperatiba Esperientziaren gutxikako gauzatzea** munizipalki lan eremu honek suposatu dezakeen aukeren igoera eta aukera-eremu zabala irekitzen duen produktu turistiko bezala.
- Etorkizuneko aldeko proiektioak, **gainerako udal baliabideak birkokatzen ditu** eta osagarri elementu edo elementu lagungarri bezala balioan jartzen ditu.
- Eta **eskualde mailan**, aukerak eskaintzen ditu ere, dagoeneko existitzen den eskaintza egituratzeko bailara osoak partekatutako izaera “sozial” batetik eta **ezagutzeko erraza eta trinkoa** den eskaintzaren sinergiak sortuko dituen **eskualde mailako marko** batetik hasita.

Testuinguru horretan, **LAN ESTRATEGIAK** landu beharreko bi lerro:

- **BALIABIDE KOOPERATIBOA ERDI EPERAKO PROIEKTU BEZALA:** helburua, epe erdi-luzean eta prozesuen ikuspuntutik baliabide hau balioan jartzeko Esperientzia Kooperatiboaren proiektu estrategikoa dinamizatzeko lan egitea da.
- **UDALERRI ETA ESKUALDE MAILAKO BALIABIDE OSAGARRIAK:** Beharrezkoa suertatzen da abiapuntuko baldintzak sortzea gaur egun eskura dauden udal baliabideak optimizatzeko eta eskaintza trinkoagoaren inguruko eskualde mailako sinergiak sortzeko.

ESTRATEGIA bikoitz horretatik, IRIZPIDEAK EDO LANERAKO LEHENTASUNAK epe motzera honakoak dira:

TURISMO BERDEA

Eremu gakoak

Udaletxearen aldetik lan prozesuan aurkitzen den baliabide anitzeko abanikoa, nahiz eta turismo potentzial baxua eduki, berehalako lan eremua eta eskuragarriena baita (ez hain konplexua),



Lanerako ildoak

Baliabide hauei ikusgarritasun handiagoa emateko beharra eta turismo aktiboaren ikuspuntutik, ustiapenerako baldintza minimo batzuk ahalbidetzea.

ERDI AROKO ALDE ZAHARRA

Eremu gakoak

Erakargarria eta ezezaguna. Elementu konbinaketa horrek izan behar du, Arrasaten gastu tertziarioa sortzeko ahalmena duen jardurea turistiko potentzialaren oinarria.



Lanerako ildoak

Beharrezkoa da balioan jartzea protagonismo eta ikusgarritasun handiagoa emateko eremu urbanoan eta bideragarria egin bisita ordenatua eta turistikoki ustiagarria.

ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA + INDUSTRIA ONDAREA

Eremu gakoak

Esperientzia Kooperatiboa, Modragon Korporazioarekin batera modu kolaboratiboan kudeatu daitekeen potentzial handiko elementua da, udalerriko baliabide turistiko motorea bilakatzeko.



Lanerako ildoak

Produktuaren gauzatzeari buruzko lan konplexuari heltzeko beharra, udalerriko beste baliabide turistiko eta tertziarioekin integratutako logika bisitagarri eta esperientzial baten ikuspuntutik.

Industria aurrekariak eta horri lotutako ondarea, baloratzeko garestia eta trakzio gaitasuna, esperientzia kooperatiboarena baina baxuagoa. Baliabideen jomugaren lehentasunari buruzko eztabaida, bizilagunek gozatzeko edo turismo optimizazioarako alegia (adibidea: Kulturola)



Burdin kultura eta iragan industrialaren integrazioa, gaur egungo Esperientzia Kooperatiboaren aurrekari historiko bezala eta honen turismo ustiapenaren menpe.

ONDARE INMATERIALA

Eremu gakoak

Gaur egun garrantzia txikiko hainbat elementuren existentzia egungo jai dinamiken nortasuna indartuko duen erreferentzia izatera iritsi daitezkeelarik,



Lanerako ildoak

Jai programetan, modu partehartzaile eta sozialean, txertatzeko apustu iraunkorra, erdi epera izaera erreferentea edo ikuspuntu ludiko-kulturaletik ikono dena.

IGNAZIOTAR LURRALDEA ETA ESKUALDEA

Eremu gakoak

Gaur egungo eskualdeko baliabideek ez dituzte sinergia esanguratsuak sortzen Arrasaterekin; alde batetik, dinamika turistikoan Arrasateren faltagatik momentura arte behintzat; eta nolabait udal baliabide desberdinaen artean zubi eta loturak sortzeko partekatutako marko edo istorio falta dela bide.



Lanerako ildoak

Ignaziotar Lurraldeak, lan-esparru komun baten baitan, eskualdeko sare baliabideei konexioei trinkotasuna emateko eskaintzen duen markoaren optimizazioa.

LANERAKO ELEMENTU TRANSBERTSALAK: ENPRESA LEHIAKORTASUNA ETA KOMUNIKAZIOA

Eremu gakoak

Dagoeneko existitzen diren baliabide turistikoaren gaineko lana eta euren optimizaziotik haratago, Arrasateko turismo kudeaketak, enpresa turistiko-terziario ikuspuntutik beraiekiko elementu transbertsalak eta komunikazioa helmuga turistiko bezala.



Lanerako ildoak

Enpresa parke turistiko-terziarioaren eta bere lehiakortasunaren errefortzua lana eta turismo salmente oinarri bezala.
Hiri Marka elementuen formalizazioa komunikazio eta lurralde marketinaren tresna bezala.

III. ATALA

EKINTZETARA...

5.- EKINTZA PLANA

ARDATZAK	LERROAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	MARTXAN JARTZEKO EPEA	AURREKONTUA
1. ARDATZA-TURISMO BERDEA	1.1.- BALIZATZEA ETA EGOKITZAPEN ESFORTZUARI JARRAIPENA EMAN (ETA MANTENIMENDUA) , bai ibilbideena, baina baita dagoeneko existitzen diren ekintza eta animazioena ETA TURISMO AKTIBOAREN USTIAPENERAKO OINARRIAK FINKATU.	1.1.1.- TURISMO AKTIBO JARDUERAK SENDOTU (Udal Jardueraren bitartez)	<i>Altua</i>	<i>Urte 1</i>	<i>Aldakorra proiektua eta kudeaketa moduaren arabera</i>
	1.2.- Baliabide mota hauen KOMUNIKAZIOA ETA PROIEKZIOA SENDOTU Arrasate posizionatu/hedatuko duten mailakatutako ekintzen bitartez (1.2.1); baliabide propioen ustiapenerako elkarlan formulak eta bitarteko tradizionalak (1.2.3).	1.2.1.- MENDIZALE ENCOUNTER	<i>Ertaina</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>15.000 30.000€ eskuragarri dauden baliabideen arabera</i>
		1.2.2. HEDAPENERAKO MATERIALAK	<i>Altua</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>15.000€</i>
2. ARDATZA-ERDI AROKO ALDE ZAHARRA	2.1.- ARRASATEKO ERDI AROKO IRLA	2.1.1.- ISTORIOA ETA IBILBIDEAK	<i>Ertaina/Altua</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>8.000€</i>
		2.1.2.- SEINALEZTAPENA ETA BALIZATZEA	<i>Altua</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>15.000€</i>
		2.1.3.- KONTRASTE bidezko ANIMAZIOA	<i>Ertaina/Baxua</i>	<i>Urte 1</i>	<i>Aldakorra</i>
		2.1.4.- INTERAKZIO JOKUAK	<i>Baxua</i>	<i>Urte 1</i>	<i>1.000-15.000€</i>
		2.1.5.- BISITA GIDATUAK	<i>Altua</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>Aldakorra: kudeaketa modua. 25€/ordua</i>
		2.1.6.- APP; NFC; QR KODEAK?	<i>Ertaina</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>Aldakorra: teknologiaren arabera</i>
		2.1.7.- ELEMENTUEN EGOKITZAPENA	GUTXINAKAKO	<i>Ertaina/Altua</i>	<i>Urte 1</i>

ARDATZAK	LERROAK	EKINTZAK	LEHENTASUNA	MARTXAN JARTZEKO EPEA	AURREKONTUA
3. ARDATZA.- ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA ETA INDUSTRIA ONDAREA	3.1.- ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA: IDEIA 1.- Proiektu publiko-pribatua (Udaletxea – MONDRAGON KORPORAZIOA): 2.- Turismo esperientziala 3.- Laneko maila desberdinak: • Esperientzia osagarriak espazialki... • Eskualdean eta bere erakargarrtasun puntuetan (marko osagarri aberasgarri bezala) bananduta. 4.- Merkatu Segmentuak: publiko bikoitza • Munduko Kooperatibak eta esperientzia “sozialak” mugitutako jendea (Target zehatza) • Turista Orokorra (Target Osagarria) 5.- kudeaketa kolektiboa - Mondragón Turismo Cooperativo 6.- EAE mailako Proiektua	3.1.1.- BEHARREZKO LANKIDETARZAKO MARKO BATEN SORRERA (Bidean) ETA TURISMO PRODUKTUAREN DEFINIZIO ETA GAUZATZEA 3.1.2. ELEMENTU OSAGARRIA: A.- Menu kooperatiboa B.- CRAFT-BILDUMA Kooperatibak	<i>Oso altua</i>	<i>Urte 1</i>	<i>30.000€</i>
	3.2.- ONDARE HISTORIKO-INDUSTRIALA: ERABILEREN BIZIBERRITZE ETA BERRANTOLAKUNTZA		<i>n.p.</i>	<i>n.p.</i>	<i>n.p.</i>
4. ARDATZA.- ONDARE INMATERIALA	4.1.- OHITURA ZAHARRAK, TRADIZIO BERRIAK		<i>Baxua</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>n.p.</i>
	4.2.- KULTURA, JAIK ETA KIROLA TURISMOAREKIKO KOORDINAZIO ELEMENTU BEZALA		<i>Altua</i>	<i>Berehalakoa</i>	<i>n.p.</i>
5. ARDATZA UDAL BALIABIDEEN ESKULADE TRATAERA	5.1.- UDAL BALIABIDEEN OPTIMIZAZIO KOLEKTIBOA: IGNAZIOTAR LURRALDEAREN KASUA	5.1.1.- IGNAZIOTAR ESPARRUAREN ELEMENTU LAGUNGARRIAK	<i>Ertaina</i>	<i>Urte 1</i>	<i>n.p. hasiera fasean</i>
	5.2.- TRATAMIENTO COMARCAL DE RECURSOS MUNICIPALES	5.2.1.- UDAL BALIABIDE SAREAK	<i>Ertaina</i>	<i>Urte 1</i>	<i>n.p. hasiera fasean</i>
6. ARDATZA ENPRESA: KALITATEA ETA LEHIAKORTASUNA	6.1.- ESPARRU HAUEN ETA BERRIEN ETENGABEKO BIZIAGOTZE ETA KOORDINAZIOA		<i>Altua</i>	<i>Berehalakoa</i>	<i>n.p.</i>
7. ARDATZA- KANPO PROIEKZIOA	7.1.- KOMUNIKAZIOA	7.1.1.- MARKARE FORMALIZAZIOA+ SLOGANA	<i>Altua</i>	<i>Urte 1</i>	<i>3.000€</i>
		7.1.2.- ON LINE DIMENTSIOA ETA POSIZIONAMENDUA	<i>Altua</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>15.000€</i>
	7.2.- INFORMAZIOA	7.2.1.- INFORMAZIO PUNTUAK	<i>Ertaina/Altua</i>	<i>6 hilabete</i>	<i>18.000€</i>

1.ARDATZA- TURISMO BERDEA:

Bere nortasunaren elementu aipagarriena ez bada ere, EAEko erdialdean kokatuta egoteak eta ingurune naturalak (Aitzkorri-Aratz Parkea), udalerriko baliabide zuzenena egiten du, Besabide eta Udalatxekin batera.

Oinarrizko ikuspegitik, udalerriak guztira edo partzialki hainbat Ibilbide Txiki ditu (PR-GI 106 Arrasate-Arantzazu; PR-GI 96 Udala-Besaide; PR-GI 91 Erregebide-Bedoña; PR-GI 42 Tour de Kurtzetxiki; y Vía Verde Vasco-Navarro) eta Ibilbide Luzeak, (GR 121 Vuelta a Gipuzkoa). Horiei, ondorengoak gehitu behar zaizkie: eskualdeko pareko ibilbide-sareak; turismo aktibo lakalaren enpresa eskaintza txikia (udal baliabideei ez zuzendua); eta baita ere kirol edo turismo aktibo ekintzen existentzia, adibidez: Arrasate-Udalatx, kros herrikoiak (Arrasate-Oñati, cros-roller, cros de Santamas), mendi trabesiak eta esparru horretako beste hainbat ekintza. Logika horretatik hasita, Plangintzak honakoak proposatzen ditu:

1.1.- BALIZATZEA ETA EGOKITZAPEN ESFORTZUARI JARRAIPENA EMAN (ETA MANTENIMENDUA), bai ibilbideena, baina baita dagoeneko existitzen diren ekintza eta animazioena **ETA TURISMO AKTIBOAREN USTIAPENERAKO OINARRIAK FINKATU.**

Udaletxeak ireki du dagoeneko duela denbora bat, ibilbideen pixkanakako balizazio eta egokitzapena, kirol logika eta logika informatibo-pedagogikoaren ikuspuntutik trafikoa hobetzeko helburuarekin.

Existitzen diren baliabideen egokitzapenerako esfortzuei jarraipena ematea proposatzen da; eta euren animazio aktiboaren mantenua, turismo aktiboko jarduera zehatzen ikuspuntutik, nahiz erlazionatutako ekintzen ikuspuntutik.

1.1.1.- TURISMO AKTIBO JARDUERAK SENDOTU (Udal Jardueraren bitartez)

DESKRIBAPENA: esparru honetan, garapen jarduerak, udalerriak eskaini ditzakeen turismo aktiboaren ustiapenerako aukerekin erlazionatu eta orientatu Mendi Ibilbideen aukera desberdinetan zuzendutako jarduerak dira (Udalatxeko burdin minetara bisitak; Muruko lubakiak; Espeleologia (Kobahandiko gurutzea eta Leze-Txikiren sarrerarako igoera); Multiabentura (Tirolina, eskalada...); BTT Zirkuituak; Nordik Walking trabesiak etab. Era berean, erlazionatutako jarduerak sortzen dira, turismo berdearekin lotutakoak, baina turismo aktiboarekin lotutakoak; esaterako, kirol jarduerak eta karabanentzako eremu bat instalatzeko beharra..

EKINTZAK:

ESKAINITZA, USTIAPEN MODUAK, INBERTSIOAK ETA PROIEKTUAREN JAURTIKETA

- Ingurumenarekin eta abenturarekin lotutako turismo merkatuaren beharrak identifikatu (Espainiako turismo aktiboari buruzko Aneta informea).
- Arrasateko ezaugarri naturalak eta baliabideak identifikatu, horrelako jardueren garapenerako egokituak.
- Existitzen diren kirol jarduerak eta euren proiektio turistikoa optimizatu.
- Arrasaten autokarabaren elkargunerako beharra analizatu, ostaturako turismo verde praktikatzan duten turistek aukeratutako modalitate nagusia den heinean.
- Sektoreko eragileekin aukera posibleak egiztatu eta elkarrekin garatzeko aukera analizatu.
- Enpresarekin batera, egin beharreko jarduerak eta horien bideragarritasun ekonomikoa analizatu.
- Behar materialen eta jarduerak garatzeko beharrezko azpiegituri buruzko aurrekontua egin. Udaletxeak egin beharko lituzke inbertsio horiek.
- Behin erabakita martxan jarriko diren jarduerak eta egindako inbertsioak (edo martxan jartzeko proiektua), Udaletxean, jarduerak eskainiko diren kondizioak, egutegia eta parte-hartze baldintzak jasoko dituen baldintza tekniko eta administratiboen dokumentuak elaboratu eta onetsi. Bideragarritasun Plangintza orientagarri bat ere txertatu daiteke jardueraren garapenerako.
- Deialdi bat egin egingo den jardueraren kudeaketaren kontzesiorako.
- Enpresa esleitu aukeratu.
- Marketing eta difusio Plana.
- Proiektuen jarraipen eta ebaluaketa.

AURREKONTUA: Aldakora proiektua eta kudeaketa moduaren arabera

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Urte 1

LEHENTASUNA: Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

{ www.aneta.es: Asociación Nacional de Turismo Activo

{ www.aktiba.info: Asociación de empresas de Turismo Activo de Euskadi

{ www.txindokikoitzala.com: Jarduera desberdinetako aventura parkea (arroilen jaitsiera, ibilbide tematikoa, Aralarreko Artzaiari visita, eskalada, gaueko aventura parkea, multiabentura parkea) eta Lurlan produktu autoktonoen denda.

{ Abaltzisketako Zuhaitz Parkea kudeatzeko lehiaketa: [esteka](#)

1.2- Baliabide mota hauen KOMUNIKAZIOA ETA PROIEKZIOA SENDOTU Arrasate posizionatu/hedatuko duten mailakatutako ekintzen bitartez (1.2.1); baliabide propioen ustiapenerako elkarlan formulak (1.2.2) eta bitarteko tradizionalak (1.2.3).

Planteatutako ekintzak:

1.2.1.- MENDIZALE ENCOUNTER

1.2.2.- HEDAPENERAKO MATERIALAK

1.2.1.- MENDIZALE ENCOUNTER

DESKRIBAPENA: Testuinguru horretan, Arrasateri modu nabarmenean ospea lortzea eta posizionatzea lagunduko dion **ekintza**.

Ibilbideei edo mendiko errepideei (trails, ultratrails etc), lotutako ekintzak garapen handia jasan dute azkenengo urteotan EAEn; eta udalerriri proiektzioa eta zona/ospea eskaintzen dioten ekintzak bihurtu dira eta baliabideak esparru honetan. Badira dagoeneko hainbat herri eta eskualde, beraien ezaugarri eta apustu aurrekariarengatik, esparru honetan abantaila posizioa hartu dutenak. Zentzu honetan, Arrasatek lan osagarria aurkitu behar du, desberdina, proiektzio hori eta bisitarienganako deia posible egingo duena, Puntaik Punta edo Besabide Eguna bezalako beste eskualde inizatiba batzuekin batera.

Kondizio honek zentzu klasikoenean gazteek mendiarekiko duten afizioaren beherakadarekin egiten du bat (federatu kopuruaren beherakada). Eta BESAIDEk hiru lurraldeen elkargune modutzat euskal mendizaletasunarentzat irudikatzen duen sinboloarekin.

Horregatik gomendatzen da ondorengo lantzea: **BIHARKO MENDIZALEAK: GOGAIDEOK ETA BIDAIDEOK BESAIDEN. “Mendizale Encounter” moduko bat mendiarekiko afizioaren sentsibilizazioa lantzeko, bitartekoaren ezagutza, jasangarritasuna, mendizalearen balio tradizionalak, kompetiziotik (zein izango den azkarrena eta indartsuena) haratago.**

- generazio arteko jai ekintza bat, publiko **familiar eta jubenilari** zuzendutako hezkuntza jarduerak eta guardia zaharra edo mendizale ospetsuen tutorizazio edo erreferentzia rolak barne hartuko dituena.
- **bitartekoaren ezagutza, euskal mendia eta ingurumen jasangarritasuna, esparru horiei lotutako elementuekin batera** (ezagutza/hezkuntza + kirola) landuko duena XXI. Mendeko mendizalean oinarrituta.
- Euskal federazioa eta hiru lurraldeetako mendi elkarteak inplikatu dituenak.
- hiru lurraldeetako **hezkuntza zentroak**.
- **Mendizale ezagunenak hizlariak direlarik, tailerrak animatzen dituztelarik, etab..**

(mendizale festa ondorengo osagarriekin: eskolak/familiak, tailerrak, ibilbideak eta inguruarekin erlazioa, esperientzien istorioak eta mendi frogak gaintzeko talde arteko lehiaketa bitartekoen ezagutza eta praktikak eta jarrera jasangarri integralak... indar fisikoa eta azkartasuna baino gehiago).

EKINTZAK:**EKINTZA MULTZOEN DEFINIZIOA, HONEKIN LOTUTAKO BESTE JARDUERA ETA DINAMIZAZIOAREKIN KOORDINATUTA**

- “Lan talde” espezifikoko baten sorrera proiektuaren diseinuan lan egiteko (CVC, udal elkarteak, garapenerako agentzia, mendizale elkarteak...) Arrasateko Udala buru delarik. Inplikazioa eta gastuen banaketa da helburua.
- Ekintza hau Debagoienako “Puntaik Punta”rekin bateragarria den analizatu eta bere antolatzaile nahiz kolaboratzaileak inplikatu. Publiko objektiboa eta beharrak/ desioak definitu programa erakargarri bat garatzeko helburuarekin.
- Ekintzen egutegiaren analisia, ekintzaren data egutegi horretara egokitzeko.
- Garatu beharreko jardueren identifikazioa eta aukeraketa: hitzaldiak, debateak, taldekako frogak, lurralde arteko lehiaketak, tabernak, kontzertuak, erakusketak, umeentzako jarduerak, puzgarriak, ibilbideak, aztarnen interpretazio tailerrak, bazkari herrikoiak, monumentuari omenaldia...
- Bazkide edo babesleen bilaketa. .
- Marketing eta hedapeneko Plana.
- Ekintzaren Merkaturatze Plana.
- Produktu zehatzen sorkuntza eta salmenta.

Arrakastaren arabera haztea ahalbidetzen duen tamaina txikiko ekintza batetik hasia proposatzen da.

AURREKONTUA: Aldakorra eskuragarri dauden baliabideen arabera. 15.000,00€ - 30.000,00€

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete.

LEHENTASUNA: Ertaina

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

- { <http://puntaikpunta.turismodebagoiena.com/>
- { <http://www.encuentrosenderismolanzarote.com>
- { XXI leongo mendizaleen topaketa
- { XLIV mendizale beteteranoen topaketa
- { Berlingo Maratoia

1.2.2- HEDAPENERAKO MATERIALAK

DESKRIBAPENA: hedapenerako materialen eta komunikazio elementuen eguneratzea (ikusi 7.1. y 7.2. jarduera lerroak).

Beharrezkoa da bidaiako fase guztietan elkar eragiteko materialak eta espazioak (fisikoak eta digitalak) bisitarien eskuetan jartzea. Fase bakoitzak espazio eta estrategia zehatz batzuk behar ditu. Amesten eta planifikatzen dagoenetik, erosi, esperimentatu edo ondoren gomendatzera iritsi arte.

EKINTZAK:

- Turista potentzialak igaroko dituen etapa guztiak identifikatu (Fase honetan Bezeroaren Esperientzia Mapa - *Customer Journey Map* izeneko tresna oso erabilgarria da). Turista batek bidaiara edo egonaldi baten zehar hainbat fase igarotzen ditu.
 1. Lehenik, oporrak amestu edo imajinatzen ditu eta helmugari buruzko informazioa bilatzen hasten da; zer egin dezakeen, tokiak, ostatuak...
 2. Behin helmuga erabakita bidaiara erosi edo erreserbatzen du, gaur egun modu indibidualean geroz eta gehiago bidaiara agentziaren laguntzarik gabe.
 3. Behin turista helmugara iristen delarik, esperientziak bizitzen dira: ostalua, jendea, ostalaritza, garraioa, loturak... Elementu eta baliabide guztiak eragina izango dute turistaren esperientzian.
 4. Bidaiaren esperientzia gakoa izango da, turistak jomuga plataforma desberdinetan eta ahoz aho gomendatzeko momentuan.
- Aurreko puntuan deskribatutako fase bakoitzaren turistak, errazten dizkiogun jarduera eta baliabideen inguruan dituen beharra konketuak identifikatu eta analizatu.
- Gaur egungo baliabide erabilgarriak turisten behar errealekin egiaztatu.
- Turistak Arrasate gozatu eta gomendatzeko beharrezko baliabideak ekoiztu/sortu.
- Eragin handiko pertsonak eta aldizkariak (bloggerrak) gonbidatu Arrasateko turismo eskaintza disfrutatzeko eta hedapenean kolaboratzeko.

AURREKONTUA: 15.000,00€



MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete

LEHENTASUNA: Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

{ Customer Journey Map

{ Hurrengo adibidearen helburua, Bezeroaren Esperientzia Mapa ilustratzeko modua adieraztea da; dena den, honako hau ez da behin betiko Mapa. Beharrezkoa da tresna kasu eta esperientzia konketu bakoitzari egokitzea.

 Perfil del cliente: turista nacional, familia con hijos,...		ANTES		DURANTE		DESPUES
		SOÑANDO	PLANIFICANDO	COMPRANDO	EXPERIMENTANDO	RECOMENDANDO
ETAPAS						
NECESIDADES	Piensa en sensaciones y destinos	Información sobre el destino, alojamientos, planes, transporte...	Reserva online	Señalización adecuada	Espacios para comentar	
	Recuerda viajes pasados		Reserva en origen, agencias	Información sobre la oferta		
ACTIVIDADES	Internet	Buscadores	Reserva online/origen	Llegada a destino/aparcar	Muestra su opinión sobre el destino: online, amigos	
	TV	Tripadvisor	Confirmacion	Desarrollo experiencia	Rellena cuestionarios satisfacción	
	Revistas	Pregunta amigos	Consulta dudas	Alojamiento, gastronomía...	Revisa fotos y recuerdos	
PUNTOS DE CONTACTO / ARTEFACTOS	Anuncios, reportajes en TV	Google, tripadvisor	Página web y RRSS	Empresas alojamiento, hostelería, transporte	Tripadvisor, booking, foros..	
	Anuncios reportajes en Internet	Folletos	Email y documentación recibida	...	Cuestionario de satisfacción	
	Presencia en revistas, foros...	Página web y RRSS destino	Pasarelas de pago		Souvenirs, folletos	
EMOCIONES	+					
	-					
OPORTUNIDADES A DESARROLLAR						

2.ARDATZA- ERDI AROKO ALDE ZAHARRA

Bisitariarentzako elementu identifikatzaile garrantzitsu eta harrigarriena da ziur aski. Bisitariak ez du espero industrializazio handiko testuinguru moderno honetan Erdi Aroko Kaxkoa egotea. XX. Mendeko ingurune urbano eta industrialean aurkitzen den Erdi Aroko irla bat.

Erdi Aroko diseinua duen Kaxkoan balio historiko-artistiko handiko hainbat eraikuntza eta elementu bitxi/pintoresko kokatzen dira, euren baitan bisitariaren mobilizatorako trakzio elementu nahikoa ez direlarik. Dena den, batera bisita interesgarri eta atsegina ahalbidetzen dute eta honek izan behar du bisitariaren harrerarako lan oinarri naturala.

2.1.- ARRASATEKO ERDI AROKO IRLA

XXI. mendeko testuinguruan, Erdi-aroko Irlatxo edo gotorleku baten ikuspuntutik, Kaxkoa balioan jartzeko laneko 7 elementu integratu proposatzen dira:

2.1.1.- ISTORIA ETA IBILBIDEAK

2.1.2.- SEINALEZTATZEA ETA BALIZATZEA

2.1.3.- KONTRASTE BIDEZKO ANIMAZIOA

2.1.4.- JOKU INTERAKTIBOAK

2.1.5.- BISITA GIDATUAK

2.1.6.- APP; NFC; QR KODEAK?

2.1.7.- ELEMENTUEN GUTXINAKAKO EGOKITZAPENA

2.1.1.- ISTORIOA ETA IBILBIDEAK

DESKRIBAPENA: Ahalik eta erakargarritasun puntu gehienak integratuko dituen ibilbideak sortu eta horri buruzko istorio koherente bat eskaini bere elementu berezienekin (bitxikeria desberdinak tartekatuz edo animatuz, erakargarriagoa egingo duten istorio edo elementuak; ez bakarrik kultura).

EKINTZAK:

- Istoriorako eta ibilbiderako Helburu Publikoa identifikatu.
- Arrasateri buruzko informazio erabilgarria analizatu.
- Pertsonai bitxiak identifikatu..
- Pertsonaiei, lekuei, gertaerei... buruzko bitxikeriak bildu.
- Ibilbideak diseinatu etajasotako informaziotik jendea emozionatzeko gaitasuna duen istorio arrunt bat idatzi. Ibilbide bat margotu eta istorioaren egitura idatzi.
- Ibilbideak eta istorioak osatzeko Euskarriak prestatu (fisiko eta digitalak).

Bisitaren esperientzia biziagoa izan dadin, ohikoa da bisita gidatu teatralizatuak antolatzea (ikusi 2.1 ekintza)

AURREKONTUA: 8.000,00€

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete

LEHENTASUNA: Ertaina/Altua

ADIBIDEAK:

{ [Getxoko bisita gidatuak](#)

{ www.cataloniatour.com

{ **Sagardo Fest Tolosa:** Gaia, sagardoa, publiko objektiboa eta sagardo arloan interesa duen Gipuzkoa osoko jendea aukeratu zen. Ondoren, udal artxiboan aurkikuntza lana egin zen, data zehatzak, sagardotegi zaharren kokapena, pertsonai erreferenteak, garaiko ohiturak... aurkitu zirelarik. Informazio hau oinarri hartuta, gidoia eta ibilbidea gauzatu zen. Ibilbidean zehar sagardotegi desberdinak seinaleztatu ziren Tolosaren kasuan, gaur egun bisitagarria den bakarra bisitatu zen eta bisita sagardo dastaketa eta garaiko pintxo batekin bukatu zen.

2.1.2.- SEINALETIKA ETA BALIZATZEA

DESKRIBAPENA:

- Ezarritako panelen mantenua eta hobekuntza.
- Alde Zaharreko ibilbide/ak balizatu inguruarekin koherenteak diren elementu identifikatiboen bitartez (adibidez, losak edo Arrasateko logotipoa duten elementuak (ikus XXX ekintza) edo "follow the yellow line"en bertsio egokitua, zaindua eta erakargarria osatuko duten irudiak); eta elementu adierazgarrienen informazio puntuak sortu (testuekin, QR koeedkin etab). Horretaz gain, posible den kasuetan eta elementuak horretarako aukera ematen duenean, bisita aukera eman.
- Alde Zaharreko elementu informatibo eta orientagarriak ezarri bere inguruan. Alde Zaharraren existentzia jakinarazi, inguruan eta sarrerako ardatzetan seinaleztapen eta informazio elementuak ezarriz.

EKINTZAK:

- Seinaleztapena gainbegiratu, batez ere udalerriko interes puntuei dagokionez.
- Interes puntuak identifikatu eta euren informazioa eta argazki historikoak bildu.
- Seinaleztapen elementuek Arrasateren historiarekiko koherenteak izan behar dute: estiloa definitu.
- Informazio puntuen diseinua definitu eta Turismo weborriarekin bateratu, joku interaktiboen bitartez, interes puntuen informazioa zabaldu edo osatzeko (ikus 2.1.4).
- Seinaleen kokapena analizatu eta erabaki turista eta sarbideen jarrera erreparatu.

AURREKONTUA: 15.000,00€

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete (panelak modu progresibo eta jarraian erreparatu)

LEHENTASUNA: Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

{ [Euskal Autonomia Erkidegorako Seinaleztapen Turistikoaren Eskuliburua](#)



2.1.3.- KONTRASTE bidezko ANIMAZIOA

DESKRIBAPENA: Izaera historiko-artistikoa, gaur egungo elementu moderno (deigarriak edo disruptiboak) eta artistikoen bitartez “apurtu”; XXI. Mendeko ingurumen industrial eta tertziarioan Historia Irlatxoaren ideia baliolan jarriko duena (Sortzaileekin elkarlana, elementu iragankor edo/eta iraunkorrez hornitzeko).

EKINTZAK:

- Eskualdeko artista eta sortzaileak identifikatu eta eurekin proiektua baieztatu (Iñigo Arregiren erreferentzia baloratu?/ edozein kasutan, aurre esperientziak baloratu; esaterako udalerriko errotondetan makineria industrial ezartzea eta ikusi definitutako eremuarekin bat egiten duen ala ez.
- Proiektua eremu historikoen kudeatzaileei proposatu eta horrekin bat egitera animatu.
- Proiektuaren beharrak, eremua, balorazio irispideak, aurrekontua... bilduko dituen oinarriak definitu eta artistak beren proposamenak egitera gonbidatu.
- Aukeraketa eta martxan jartzea.
- Urteko eskuhartzeen egutegia sortu.

Aukera moduan, graffitiak erabili daitezke izaera historiko-artistiko horrekin hausteko.

AURREKONTUA: Aldakorra

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Urte 1

LEHENTASUNA: Ertain/Altua

ADIBIDEAK:



2.1.4.- JOKU INTERAKTIBOAK

DESKRIBAPENA: Ibilbideak egiten dituzten bisitarien artean Joku edo asmakizun interaktiboak egiteko aukera txertatu. Jokoen, pentsamenduaren eta joku mekaniken diseinurako elementuak proposatzen dira turista inplikatu eta berarekin harremana estutzeko, murgilketa eta kontaktu emozional nahiz sentsorial erantsiko dion esperientzia testuinguru batean.

EKINTZAK:

- Helburu Publikoa definitu eta hau oinarri hartuta, aurrein egin beharreko Erronka eta turistekin lotura emozionalerako behar/desioak ezarri.
- Gamifikazioan eta proposamenaren diseinurako enpresa espezializatuak bilatu.
- Prototipoa martxan jartzea, baieztapena eta balioztapena.

Kasu askotan, jokoen diseinua txikienei zuzenduta dago, izan ere txikiak ondo badaude, gurasoak orokorren ondo egongo dira ere.

Teknologia erabiliaz jokoak antolatzeaz gain, kaxkoan zehar gidari izango den galdera-erantzun joku bat antolatzeko aukera ere badago. Galderak informazio puntu batean banatzen dira (edo web orrian deskargatu) eta erantzun zuzenak puntu batetik bestera eramaten zaituzte, azkenean erabakitzen den puntu batean bukatzeko eta opari bat eskaintzeko.

AURREKONTUA: 1.000,00€ - 15.000,00€ (aldakorra zerbitzua erosten denaren, alokatzen denaren edo beste formula batzuen arabera).

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Urte 1

LEHENTASUNA: Ertaina/Baxua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

- { <http://www.atelier-du-piment-espelette.fr/> Labirinto bat kokatzen da piper baratzen artean eta bertan bisitariak erantzunak asmatzen joan behar dira bertatik atera ahal izateko. Bisita/jokoa doanik, baina bukaeran bisitari guztiek erosketak egiten dituzte dendan.
- { <http://www.gamificationgames.com>
- { <http://oohmd.com/gamificacion-en-el-sector-turistico/>
- { Gamification Model Canvas www.gamkt.com
- { [Bioginkana](#)

2.1.5.- BISITA GIDATUAK

DESKRIBAPENA: Testuinguru horretan bisita gidatuen eskaintzaren sendotzea. Bisita gidatuen modu berriak sartzeko aukera baloratzea. Zentzu honetan, azkenengo urteetan geroz eta interes handiagoa dute antzerki moduan gauzatutako bisitek; bisiten edukiak, bakoitzari dagokion garaiaren pertsonaien bitartez erakutsi eta azaltzen direlarik (kontutan hartzekoa, Doka antzerki taldea, udalerriko antzerki taldea eragile bezala). Mota honetako bisitei esker, historian bisitarien murgilketa handiagoa eta interes handiagoa lortzen d, bisita atseginagoa eta entretenituagoa eginez. Gaia hutsaltzeko intentziorik gabe eta alderdi ilustratzailearen ikuspuntutik, Arrasateren kasuan, Jose María Arizmendiarrera” berak turistei harrera egitea eta alde zaharreko historia eta kooperatiba mugimendua azaltzea planteatu liteke, bisitak berak bizitako istorioez apainduz.

EKINTZAK:

- Bisiten helburuak eta alderdi orokorrak ezarri aurrez aurreko bisitentzako: ordutegia eta iraupena, egutegia, eremuak, ibilbideak,...
- Bisitaren gidoia eta eremu bakoitzari azalpen bat uztartu.
- Esperientzia jarduerak diseinatu, zer egin bisitan zehar eta nola egin.
- Bisiten kudeaketa eta antolakuntza modu definitu (berezko langileak , azpi-kontratazioa...).
- Bisitan zehar esperientzia bat sorrazazi. Urte osoko bisitez gain, “aparteko” bisita posibleak identifikatu ekintza zehatzei lotuak (kontutan hartzekoa, Doka antzerki taldea antzerki bidezko bisitak egiteko).
- Audio-giden bitartez bisitak egiteko aukera ebaluatu.
- Bisita edo/eta audio-giden marketin, hedapen eta komertzializazio Plana.

AURREKONTUA: Aldakorra kudeaketa moduaren arabera. Azpi-kontratazioa 25€/ordua.

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete.

LEHENTASUNA: Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

- { [Donostiako bisita gidatuak](#)
- { [Gipuzkoako bisitak](#)
- { <https://www.audioguiaroma.com/>
- { [Antzerki bidezko bisitak Espainian](#)

2.1.6.- APP; NFC; QR KODEAK?

DESKRIBAPENA: bisitariarentzako tresna gida elektronikoak sortzeko aukera ebaluatu; edozein kasutan, eskualdeko beste alde zaharrekin batera.

EKINTZAK:

- Ekintza hau plangintzako beste ekintza osagarri batzuekin lotzeko beharrak definitu. (1.2.3, 2.1.1, 2.1.4, 2.1.5, 1.)
- Bisitarien profilaren arabera, martxan jartzeko aukera/soluzio posibleak bilatu.
- Teknologia egokiena aukeratu. Qr kodeak lantzeko errazak eta ekonomikoak dira (komeni denaren arabera aldatu edo kendu daitezkeen pegatinak ipintzea proposatzen da). APPak deigarriagoak dira eta lotura handiagoa sortzen dute, baino era berean garestia dira.
- Hedapen Plana
- Jarraipena eta ebaluazioa

AURREKONTUA: Aldakorra erabiliko den teknologiaren arabera.

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete

LEHENTASUNA: Ertaina

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

- { Salamankan qr bidezko audio-gidak: [Turismo Salamanca](#)
- { APP audiogida <http://www.gvam.es/>
- { <http://www.qrtur.com/web/turismo/>
- { <http://www.turismoapps.com/>

2.1.7.- ELEMENTUEN GUTXINAKAKO EGOKITZAPNEA

DESKRIBAPENA: Alde Zaharreko elementuen berreskuratze, errehabilitazio edo/eta hobekuntzan lagundu.

EKINTZAK:

- Elementuen inbentarioa egin, gaur egungo egoeraren eta beharren xehetasunekin.
- Ondare Historiko bezala babestuta egon daitezkeen elementu arkitektoniko berezien analisisa egin.
- Alde Zaharreko elementuan egokitzapenerako lan protokoloa diseinatu.
- Lan hauek egin ditzaketen zahar berritzaile eta profesionalak identifikatu.
- Lanen aurrekontuak egin.
- Egokitzapena hasi beharra duten elementuak lehenesteko aukera emango duten irizpideak ezarri.
- Udal prozeduren barruan ekintza protokolo bat definitu, udalerrian egindako obretan, indusketetan... balio handiko ondar arkeologikoak aurkitzeko posibilitatearekin.

AURREKONTUA: Aldakorra.

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Urte 1.

LEHENTASUNA: Ertaina/Altua.

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

3.ARDATZA- ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA ETA INDUSTRIA ONDAREA

Esperientzia Kooperatiboa da Planaren proiektu traktorea. Bera balioan jartzea eta formalizazioa baliabide turistiko bezala dira Arrasateko abagune estrategikoak sektore honetako eragile adierazgarria bihurtzeko. Planaren proiektu traktore edo erdigunea Esperientzia Kooperatiboa da. Bere balioan jartzea eta gauzatzea zein elementu honen balibaide turistiko gisa formalizatzeko prozesua Arrasate sektore honetako eragile garrantzitsu bat izatea ahalbidetuko duen giltza da

Esperientzia Kooperatiboa ez da dena den, modu isolatuan sortu den esperientzia bat. Burdin kultura eta horri lotutako metal industriarekin erlazionatutako ohitura sekularrekin batera garatu da, Arrasateren historian errotzen delarik.

Esperientzia Kooperatiboa baino lehenagoko Burdin Kultura eta Industria Ondarea izango lirateke zentzu honetan Arrasateko lan eremu naturala. Hala ere, Esperientzia Kooperatiboarekin alderatuz, burdin kultura eta industria orokorrean, ez dira Debagoiena-Arrasateko elementu bakarra edo/eta propioa, baizik eta ikuspegi desberdinetatik, irmotutako beste hainbat elementu ikoniko batzuk dituzten beste euskal eskualde batzuekin partekatua (Mirandaola Gipuzkoan, mina eremuak Bizkaian, Industria Museoa Portugaleten, etab.).

Planak zentzu honetan, lana industria ondarean eta burdin kulturaren zentratzea iradokitzen du, elementu osagarri bezala eta Esperientzia Kooperatiboa baino lehenagoko marko historiko batean; helburua, honako hau ardatz honetako elementu zentrala bihurtzea delarik.

3.1. ESPERIENTZIA KOOPERATIBOA: IDEIA GAKOAK

- 1.- **Proiektu publiko-pribatua (Udaletxea - Mondragon Korporazioa):** Bi alderdientzako eroso eta proiektua egingarria eskainiko duten rolak bilatuz. **Lurralde** proiektu bat (eskualdeko pertsonak dira protagonistak) **MONDRAGON KORPORAZIOAREN lekuko enpresa ehun kooperatiboarekin kolaborazioan.**
- 2.- **Turismo esperientziala** (kooperatibismoa bizipen soziala eta lurraldeko kultura bezala), **iraunkorra** (negozio orientazio selektiboa eta kontrolatua) eta **argia** (smarttourism teknologiek batera izaera ezaugarri moduan).

3.- Lan maila desberdinak:

a) Elementu zentrala – Ikusgarritasun fokua

- 1) Funtzioa: Harrera puntua eta bisitarien abiapuntua.
- 2) Edukiak: Arrasate Kooperatiba Lurraldea historiaren presentazioa... bere pertsonak eta enpresak, esperientzia eta lorpenak (arrakastak eta porrotak)...; pausu berrienak...; etorkizuneko kooperatibismoa... presentazio partehartzaile batean + egonaldiako orientazio markoa (esperientzia kooperatiboaren zabalkuntzarako aukerak..., bisita osagarriak..., udalerrian eta eskualdean gozatzeko ideia turistikoak...).
- 3) Non?: Udal eraikina? Eraikin singularra? Kokapen zentrala?

b) Espazialki sakabanatutako esperientzia osagarriak:

- 1) **MONDRAGON KORPORAZIOA- bisitak, bizipenak, presentazioak...: “Kooperatiba bidea”.** Industriako bisitatik hasita, BasqueCulinary Centren espazio bateko otordu esperientzialeraino, unibertsitateko gogoeta saiotik, finantza zentroaren presentaziotik, ongizate sozialaren esperientzien bisitatik, TICak eta ekonomia kooperatiboaren forma berrietatik pasata. Hau guztia, bisitak aberasteko elementuen bitartez gauzatzea proposatzen da (presentazioak, tailerrak, laborategiak, jokoak... azalpenezko formatu didaktiko eta parte-hartzaileen... bitartez
- 2) **Udalerria eta turismoa: harrera eremua.** Arrasateko hiri-ekonomia eta baliabide turistikoak harrerarako marko orokor bezala: alde zaharra; bisita historikoak, kulturalak eta aisialdikoak; eskaintza gastronomikoa eta ostatu eskaintza osagarria; kudeaketa kooperatiboko hotel horizontala proiektu berezia bezala...

c) Eskualdea eta erakargarritasun puntuak marko osagarri eta aberasgarri bezala

- 1) Eskualdeko bisiten motorra: 28 minutura... Arantzazutik Ignaziotar Lurraldera, Arrikruzetik pasata, alde zaharren ibilbideak, ezagutza eta eskualdea (Oñati, Bergara eta Arrasateko unibertsitatea), natura turismoa...
- 2) Arrasate eskualdeko beste puntu batzuetako bisiten “nodo” bezala. Debagoiena ibilbidea Arrasateko nahitaezko bisita barne-hartzen duelarik.

4. Merkatu segmentuak: publiko desberdinak

a) Munduko kooperatibistak eta esperientzia “sozialak” bultzatutako bisitariak (Target zehatza)

Arrasate, bizitzan behin bisitatzekoa den kooperatibismoaren muina...; esperientzia sozial eta territorialki bakarra.

Merkataritza eragile kolaboratzailea MONDRAGON KORPORAZIOA, herrialde desberdinetan enbaxadore ekonomikoa den heinean (nazioarteko presentzia + nazioarteko mugimendu kooperatibista).

Publiko “sozial” honentzako, eskualdea eta hiru euskal hiriburuak erakargarritasuneko elementu osagarriak dira.

b) Turista Orokorra (Target Osagarria)

Lurralde Historikoen hiru hiriburuak euren bisitari-olde izugarriarekin, eta MICE turismoaren muina izanik, Mondragon Esperientziari, gai hauekiko nolabaiteko sentsibilitatea duten turista “orokorren” ustiapen aukerak eskaintzen dituzte.

Kooperatibismoa eta Mondragon esperientzia, hiriburuaren eskaintzaren dibertsifikaziorako eta deskontzentrazioarako erakargarritasun puntu bezala aurkezten zaie turista “orokor” hauei.

c) **MICE turismoa**

Enpresa ekintzei lotutako turismo bezala (hiru hiriburuetan ospatutako ekintzen erakargarritasun puntu osagarri edo ekintza zehatz batzuk ospatzeko leku bezala...); Mondragon bezalako esperientzia ekonomikoekiko nolabaiteko sentsibilitatea duten kolektiboarentzat, taldetan eta era antolatuan.

5. Kudeaketa kolektiboa – Mondragon Turismo Kooperatiboa: Dinamizaziorako Foro Kooperatiboa Udaletxea + MONDRAGON KORPORAZIOA + Udalerri/eskualdeko ekonomia tertziarioaren Eragileak.

6. EAE mailako Proiektua: Herrialdeko erakargarritasun puntuen top ten-ean sartzeko Eusko Jaurlaritzaren inplikazioaren bilaketa (Basquetour). Herrialdeko top ten-ean sartzeko erakargarritasun puntu baten aldeko apustua era dimentsionatu eta kontrolatuan.

Idea Gako hauetatik abiatuta, bi lan lerro handi irekitzen dira.

3.1.1. MONDRAGON KORPORAZIOAREKIN KOLABORAZIORAKO MARKOAREN SORRERA (dagoeneko hasita) ETA PRODUKTU TURISTIKOAREN DEFINIZIOA

3.1.2. ELEMENTU OSAGARRIAK

3.1.1. MONDRAGON KORPORAZIOAREKIN KOLABORAZIORAKO MARKOAREN SORRERA (dagoeneko hasita) ETA PRODUKTU TURISTIKOAREN DEFINIZIOA

DESKRIBAPENA: Proiektuaren garapenerako aurre baldintzen sorreran aurrerapenak egin.

EKINTZAK:

- Mondragon Korporazioarekin batera Lan Irizpideak ezarri (lehenengo mailan burututa).
- Eusko Jaurlaritzaren, Basquetour eta Foru Aldundiarekin kolaborazio/koordinazio markoa definitu (bidean): Maila tekniko eta politiko desberdinetan Basquetour, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiko turismoko arduradunekin kontaktuak (lehenengo kontaktuak Basquetour eta Foru Aldundian gauzatuak izan dira).
- Produktu basearen diseinurako finantziario bilaketa (Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundia edo/eta Mankomunitate bidezko nahiz udaletxeko hitzarmen singularren bidezko diru laguntza lerroak).
- Definizio eta Zehazpen lanaren garapena hiru noranzkotan:
 - i) Lehenengo bezero segmentuak: identifikazioa eta dimentsionamendua.
 - ii) Eremu Zentralaren kokapenaren aukeraketa (Elma, Monterrón edo beste kokapenak) eta egokitzapen/moldatze ikerketa egokia bada: aldeko alderdien eta kontrako balorazioa: hauek eragiten dituzten mugak, lokalen errehabilitazio edo prestaketa kostuak; plan osagarria.
 - iii) Proiektuaren idazlana edukiarik eta bere gutxinakako eraikuntzari dagokionez: eskaintza zentralaren edukiaren definizioa eta instalazioa nahiz ondorengo operazioarako lotutako kostuen estimazioa.
 - iv) Basque Culinary Center kolaborazioaren balorazioa.
 - v) Mondragon ekosisteman deszentralizatutako esperientzia osagarriari dagokionez Proiektuaren definizioa: Mondragon Korporazioarekin batera baloratzeko: korporazioarekin batera eraikitzeko konponbideak.
 - vi) Inplikaturako eragileen dinamizazio eta koordinazioa.

AURREKONTUA: 30.000 euro aurre baldintzen sorrera eta udaletxeak Mondragon Korporazioarekin batera egin beharreko proiektuaren definizioarako.

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Urte 1.

LEHENTASUNA: Oso Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK: Ez dagokio

3.1.2. ESPERIENTZIA KOOPERATIBOAREN ELEMENTU OSAGARRIA

Produktu turistiko kooperatiboaren definizio lanaren osagarri moduan, eta epe luzerako proiektu konplexua dela eta, beste elementu osagarriei heldu behar zaie

A.- MENU KOOPERATIBOA

DESKRIBAPENA: Debagoienako Menu Kooperatiboaren sorrera, eskualdeko gainerako udalerriek barne hartuko duten Mondragon Esperientziak eskaintzen duen erakargarritasuna.

Debagoienako Jardunaldi Gastronomikoak ekitaldi bakoitzeko Menu Kooperatiboaren urteko eraikuntza marko bezala. Gastronomia eta elikadura beti dira garrantzitsuak. Bazkari eta afariek zapoetsua, arina eta ondoren ibiltzeko nahikoa izan behar dute. Tokiko jana eskainiko da, inguruan ekoitzi eta egindakoa.

Debagoienako Jardunaldi Gastronomikoak ekitaldi bakoitzeko Menu Kooperatiboaren urteko eraikuntza marko bezala; menu hori lantzeko, eskualdeko jardunaldi gastronomikoz aprobetxatzea iradokitzen da.

EKINTZAK:

- Herriko taberna eta jatetxeekin bilera egin, ideia eurekin baieztatzeko. Ideiak jaso eskualde mailako Jardunaldi Gastronomikotan baieztatzeko.
- Elkarte gastronomiko batzuk, kooperatibismoak erakarrirako bisitariari harrera egiteko aukera eta menu Kooperatiboan parte hartu eta lantzeko eskaintzaren aukera ebaluatu.
- Menu proposamena landu eta produktu lokala identifikatu.
- Martxan jartzeko eguna definitu eta komunikazio plana gauzatu.

AURREKONTUA: 5.000,00€

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Urte 1

LEHENTASUNA: Ertaina

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

C.- CRAFT-BILDUMA

DESKRIBAPENA: produktu sinboliko baten sorrera eta honen inguruan Corner Kooperatibotan saldu daitezkeen produktu artisauen Mondragon Bildumaren sorrera, denda, hotel (erakusmahai zehaztuta) edo Internet bitartez.

Azkio honen bitartez, diru-sarrera gehigarriak lortzeaz gain, turistarekin lotura emozionala lortzea da helburu; bidaia eta Arrasate gogoratzea eta bizi tako esperientzia gogoratu eta beste pertsoneri komunikatzeko gai izatea hain zuzen ere.

EKINTZAK:

- Elaboratu beharreko produktu posibleak identifikatu eta horien hornitzaileak aurkitu.
- Produktuen diseinu eta merkaturatzean herriko enpresak inplikatu.
- Lehenengo prototipoen ekoizpena.
- Produktuen komertzializazio modu erabaki.

AURREKONTUA: 10.000,00€

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete

LEHENTASUNA: Ertaina

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

- { [Santiago Bideko txanpon oroigarriak](#)
- { [Santiago Bideko eskumuturrekoak eta zintzilikariak](#)
- { www.txikito.com

3.2. INDUSTRIA ONDARE HISTORIKOA: ERLATIBIZAZIOA ETA ERABILEREN BERRORRENTAZIOA

Eduki hauen birkokapena (erdi aroko burdinoletatik sarraila-dendetara) udal Esperientzia Koopeatiboaren testuinguru elementu edo industria aurrekariak bezala; proiektuaren garapenerako aukeratutako eraikinean bertan erakusgai jarri litezke horiek.

Ondare honen zaharberitzearen berrorrentazioa (Erlojuaren Eraikina adibidez), Arrasateko bizilagunen erabilera propiorako (turismo erabileraren kontrajarrian) eta Kulturala proiektuaren noranzkoarekin bat gauzatu behar da.

4. ARDATZA- ONDARE INMATERIALA

Baliabide turistiko inmaterialez haratago, elementu inmaterial desberdinak identifikatu dira (ohitura zaharrak, joko zaharrak, inguruko jaki zehatzak etab), euren berreskuratzea eta kontsolidazioa Arrasateko nortasuna sendotzeko gakoa izan daitezkeelarik. Udalerriko festa ekintzen edo ekintza kulturalen esparruaren barruan eta gaur egungo jarraibideen baitan, tradizio berriak sor ditzake elementu “bigun” horien berreskuratze edo birsorkuntzak.

Elementu hauek publikoa (gaur egin txangozaleak batez ere) erakartzen duten kultura, jai edo/eta kirol ekintzen optimizazioa indartu behar dute.

4.1. OHITURA ZAHARRAK, TRADIZIO BERRIAK

DESKRIBAPENA: herriko ohitura zaharrak berriz “modan jartzea” proposatzen da, hauek etorkizunean Arrasateko ohitura Berri bilakatzuz.

EKINTZAK:

- Arrasateko ohitura zaharrak identifikatu. Gaur egun irakurketa ludikoa (Ferron Eguna) eduki dezaketen Doke, Karapaixo edo ekintza historikoz (Burdinola), Kanpanzar erromeria San Ignazio egunean... ari gara hitz egiten.
- Horri buruzko informazioa bildu (gai hauek, ikuspuntu historiko, antropologiko edo zientifikotik lantzen dituzten eragileekin lankidetzan esaterako Arrasate Zientzia Elkarte).
- Ikusgarritasun, errotze, interesen... arabera potentzial handia duten ohitura eta ezaugarriak aukeratu.
- Herriko jende ezaguna gonbidatu (eragina duten pertsonak) proiektuan parte hartzera eta tradizio berri hauek bereganatzera jai programetako ekintzen parte bezala.
- Hedapen Plana.
- Jarraipena eta ebaluazioa.

AURREKONTUA: Ez dagokio

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete

LEHENTASUNA: Baxua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

<http://www.consejodelhierro.es/encuentro.php?e=15>

4.2. KULTURA, FESTAK ETA KIROLA TURISMOAREKIKO KOORDINAZIO ELEMENTU BEZALA

DESKRIBAPENA: erakargarritasun botere garrantzitsua duten kultura, festak edo/eta kirol ekintzak optimizatzea proposatzen da, txangogileen erakargarritasunaren ikuspuntutik, balioztapen turistikoko elementu bezala.

EKINTZAK:

- Dagoeneko existitzen diren ekintzen balorazioa eta beraien arteko konexioa.
- Turistikoki eta potentzialki erakargarriak diren ekintzak barne-hartzen dituen agendaren koordinazioa.
- Horien balorazioa eta hedapena udalerritik kanpo bultzatzeko beharra.
- Agenda Integratu baten aukera baloratzea.

AURREKONTUA: Ez dagokio

MARTXAN JARTZEKO EPEA: berehalakoa

LEHENTASUNA: Altua

5. ARDATZA- UDAL BALIABIDEEN ESKULADE TRATAERA

Udal logika turistikotik haratago, turismo eskaintzaren antolakuntza eskualde-mailakoa da Eusko jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren aldetik. Zentzu honetan, ugariak dira, udal logikatik haratago eskualdeko eskaintzaren marko zabalagoan eta sinergiakoan integratu daitezkeen baliabideak, modu kolektibo eta kooperatiboago batean.

Honen inguruan, bi lan-lerro posible identifikatzen dira: eskualde osoak optimizatuko dituen udal baliabideak, bere komertzializazioa bideragarri egingo duten produktu edo/eta mekanismo osagarrien bitartez (Ignaziotar Lurraldearen kasua). Bestetik, beharrezkoa izango da, eskualdean turisten ibilbideen gorakadari mesede egiteko udal baliabide sareak sortzea.

5.1- UDAL BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA: IGNAZIOTAR LURRALDEAREN KASUA

Ignaziotar Lurraldeak “aterki” orokor bat eskaintzen dio Ignaziotar Bide inguruko erakargarritasun puntuen multzoari eta Debagoienako udalerriei. Bere optimizazioak dena den, batasuna eta trinkotasuna oinarri izango duten elementuak garatzea eskatzen du, gaur egun, ez dagoena.

5.1.1. IGNAZIANO EREMURA LAGUNTZA ELEMENTUAK

DESKRIBAPENA: ignaziotar lurraldea kontzeptua sendotuko duten elementu turistikotik eta komertzial osagarrien sorreran aurrerapenak egin: Aurrez azaldutako kontzeptuek (Menu Kooperatiboa, Diru Kooperatiboa edo Craft-Bilduma Kooperatiboa) Ignaziotar Menua edo Ignaziotar Craft-Bilduma eskualde irakurketak izan ditzakete erraz.

EKINTZAK:

- Ideia hauen traslazioa Ignaziotar lurraldeko eskualde mailako lan markora, emen baloratzeko bere gorakada EAE mailako baliabide orokor propiora.
- Bere harreraren arabera, lan plan zehatzak dagoeneko kasu kooperatiboan deskribatutako terminoen zentzu berean.

AURREKONTUA: Ez dago hasiera fasean

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 1 Urte 1 bere planteamendurako eta eskualde maila eta EAE mailako traslazioarako eta 2 urte bere garapenerako

LEHENTASUNA: Ertaina

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK: Lankidetzaren eremuan aurreratutako antzeko proiektuen berdinak

5.2.- UDAL BALIABIDEEN ESKULDE TRATAERA

Ignaziotar Lurraldearen markoan, ugariak dira udal baliabide independenteak. Horiek, bere izaera eta gai hurbiltasuna edo antzekotasuna dela eta elkarrenganako onura/etekin eta sinergiak sor ditzakeen eskaintza koordinatu eta komertzializatua osa dezakete.

5.2.1.- UDAL BALIABIDE SAREAK

DESKRIBAPENA: Ibilbideen eskaintzatik hasita, eskaintza turistikoaren eskualde perspektibaren errefortzua (Ignazitar Lurraldearen markoan garatutako ekimenak)

- Oñati, Bergara eta Arrasate kasu historikoen aurkezpena, Alde Zaharren Ibilbide sarea hain zuzen. Guztien artean hedapenerako tresnak sortzeko aukera (App bateratuak), bateratutako bisita gidatuen salmentak etab.
- Unibertsitate eta Ezagutzaren ibilbideak (Oñati, Bergara, Arrasate). Lehenik, definizioa beharrezkoa duen produktua (ustiapen aukera handiena eskaintzen dutenak berehalakoan, Oñatiko Unibertsitatea eta Laboratorium dira; baina definizio zehatz baten beharra dago Arrasateren kasuan).
- Lanbidei buruzko Ibilbidea (Dinbi-Danba, Leintz Gatzaga...) komunikazio eta salmenta bateratuaren planteamendua.

EKINTZAK:

- Ideia hauen traslazioa eskualde mailako lan markora bere interesa eta bideragarritasuna baloratzeko.
- Bere harreraren arabera, zehaztasunerako lna plan zehatzak.
- Aukeratutako proiektuaren edo proiektuen garapen zehatzerako:
 - Gomendagarria da, azaldutako baliabideen kudeatzaileak, eskualdeko udalerrriak eta eskualdearen garapenerako Agentziak osatutako lan talde bat ezartzea. Hauek proposamen desberdinak baieztatzeaz gain, ekintzak koordinatu eta horietatik sortutako produktuak modu bateratuan kudeatzeaz arduratuko litezke.
 - Beharrezkoa da proposamenak zuzentzen diren publiko zehatz hori definitzea, behin profil zehatzak definituta izanda, bezero bakoitzari egokitutako produktu desberdinak eskaintzeko.

AURREKONTUA: Ez dagokio hasiera fasean

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 1 Urte 1 bere planteamendurako eta eskualde maila eta EAE mailako traslazioarako eta 2-3 urte bere garapenerako.

LEHENTASUNA: Ertaina

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK: antzeko proiektuetarako aurreratu diren kooperatibismoaren esparruan

6.ARDATZA- ENPRESA: KALITATEA ETA LEHIAKORTASUNA

Gaur egungo turismo enpresen kalitate eta enpresa lehiakortasun programak Eusko Jaurlaritzak finantzaturako jardueren parte dira eta eskualde mailako egitura turistikoaren bitartez daude kudeatuak.: Debagoienako Mankomunitatea kasu honetan. Sustapen esparruan era berean bideratzen dira Gipuzkoa Foru Aldundiak kudeatutako programak.

6.1.- ETENGABEKO KOORDINAZIOAREN INDARTZEA ESPARRU HONETAN ETA BERRIETAN

DESKRIBAPENA: jarduera hauentzako elkarlanerako markoa finkatu (kalitate programak, enpresa lehiakortasuna, ekintzailatza turismoan, etab) Arrasateko enpresengan eragina izango dutenak; eta udal esku-hartzea eskualdearekin koordinatu, Udal Jarduera Planean proposatutako gainerako esparrutan sinergiak lortzeko (esperientzia kooperatiboa, udal baliabide sarea, ignaziotar ekimenak, etab).

EKINTZAK:

- Esparru honetako eskualde mailako tekniko eta udal teknikoaren arteko etengabeko komunikazio egonkorra, mankomunitatean gauzatutako bilera globaletatik haratago. Informazio gardentasunaren ohiturak (elkar banatu) lan partekatu eta sinergiak estimulatuzko. Era berean, udalerraren eta mankomunitatearen artean agendak elkar banatu eta sinkronizatu.

AURREKONTUA: Ez dagokio

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Berehalakoa

LEHENTASUNA: Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

7.ARDATZA- KANPO PROIEKZIOA

Turismo lanak halaberrez, kanpo proiektzioa zabaltzea lagunduko dion komunikazio politika baten beharra du; zeinek eskualde eta Gipuzkoa mailako eskaintza markoan, zuhurtziaz eta trinkotasunez Arrasateri presentzia emango diona; eta aldi berean, bisitariaren behar informatibo eta operatiboak betetzen dituen.

Marka garatzerakoan, kontutan hartzekoak izango dira hedapen kanalak (tradizionalak eta birtualak) eta proiektuaren edukirako sarbidea edukiko duen publiko mota. Marka garatzerakoan, lehenengo aukera bezala hedapen birtualaren aukera egongo da; hau da, irudia eta horrekin batera proiektuaren izaera erakutsarazteko lehenengo kanala izango da.

7.1.- KOMUNIKAZIOA

Kanpo proiektzioaren ikuspegitik, laneko ildo anitzak/ dira:

7.1.1.- MARKAREN FORMALIZAZIOA+ ESLOGANA

7.1.2.- ON LINE DIMENTSIOA ETA POSIZIONAMENDUA

7.1.1.- MARKAREN FORMALIZAZIOA + ESLOGANA

DESKRIBAPENA: Arrasate-Mondragón udalerrriak izen oneko marka du, MONDRAGÓN (korporazio kooperatiboarekin partekatzen duena). Baina beharrezkoa egiten da marka horren formalizazioa finkatzea (tipografia, koloreak, aukerak euskarriaren arabera...) eta bestetik, bere proiektuak, merchandising-aren sorrerarako... lagungarri izango diren logo edo logoak sortzea. Kontutan hartzekoa da zentzu honetan "Arrasate Irekiarentzako" gauzatutako lana; bertan, seinaleztapena, grafia, estiloa, kolorearen... inguruko hausnarketa egin zen.

Alde batetik **MARKA**, eta bestetik logoak dira epe luzeko bokazioarekin sortuak izan behar duten elementu erlatiboki egonkorak (eta baliagarriak berehalako egoera baterako eta epe luzerako); eta edozein kasutan, modu koordinatuan (era desberdinduan baino ez disonantean) enpresa korporazioarekin berarekin.

SLOGANA edo mezua bestetik, egoeraren arabera edo kointurala da. Epe ertain edo motzera (Eszenatoki euskarria) bere leit motiv-ak ezin du Esperientzia Kooperatiboari lotuta egon (eraiki beharreko produktu turistikoa da oraindik). Etorkezunean, beharrezkoa suertatzen bada, eta ziurrenik horrela izango dela; baina kasu honetan Korporazioarekin koordinatutako eta adostutako marko batean.

Edozein kasutan, markak eta sloganak ondorengo **oinarrizko EZAUGARREKIKO** koherenteak izan behar dute: **Iragankortasuna (lerro berdea); Helmugaren Kohesioa eta Izaera Soziala (kooperatiba mundua);** eta elementu historikoen (alde zaharra eta ondare immateriala) integrazioa Modernitate eta Etorkezuneko apustuarekin.

EKINTZAK:

- Hiru marka aukera aurkeztuko dira. Irudiaren edo markaren proposamenak bere balorazio eta aukeraketarako hiru diseinu irizpide izango ditu. Kontutan hartuta, proiektu hau epe luzerako proposatu dela, markari izaera egokia eman behar dio bi alderditan desberdindua: alde batetik, irudia (ikonografia) eta bestetik, slogana edo esaldi aipagarria eta proiektuarekin identifikatzeko esplizitua. Sloganean bertan hartuko da kontutan alde batetik proiektu beraren esentzia, eta bestetik, esentzia horren sorburua den enpresa korporazioan. Hasierako irizpideak honela aurkeztuko dira; markaren barnean elementu horiek integratuz eta kontutan hartuta sistema tradizionalako hedapena, nahiz euskarri birtualekoa, horietako bakoitzarentzako formatu zehatzak egokituz.

1^a marka aukera

Tipografikoa

Era eksklusiboan landuko da tipografia, hau da, irudiaren izaera erabilitako letra estilo motan oinarrituko da.

2^a marka aukera

Ikonografikoa

Irudikapen ikonografikoa (logotipoa) era identifikagarrian baino ez esplizituan landuko da.

3ª marka aukera

Ikonografiko | Tipografikoa

Berdintasunean landuko dira irudikapen ikonografikoa (logotipoa) eta proiektuaren izen identifikatzaile baino ez esplizitu bat.

Aurkeztutako hiru aukeretan posible izango da slogana integratzea. Honek, bere izaera propioa izateaz gain, aldi berean guztizko irudiarekiko kohesioa izango du. Era honetan, estiloen liburua baloratu eta aurkeztuko da, modu independente edo bateratuan eta era egokian erabiltzeko.

Behin markaren diseinua eta slogana aukeratuta, estiloen liburua aurkeztuko da era bateratuan.

AURREKONTUA: 3.000€

MARTXAN JARTZEKO EPEA: Urte 1

LEHENTASUNA: Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

1. aukera

Brrasate
Acción Turismo Arrasate

Arrasate
Acción Turismo Arrasate

2. aukera

su
Acción Turismo Arrasate

3. aukera

Turicomerciate!
Acción Turismo Arrasate

7.1.2.- ON LINE DIMENTSOA ETA POSIZIONAMENDUA

DESKRIBAPENA: Komunikazioaren on line dimentsioa ez da behar bat, baizik eta edozein esfortzu turistikoren eginbehar bat. Zentzu honetan, ezinbestekoa da...:

- Arrasateko Erakargarritasun puntuen presentzia eta informazioa WEB-ORRI eta SARE SOZIALEN bitartez sendotu (batez ere hurrengo apustu elementuetan: Turismo Berdea, Alde Zaharra; Kooperatibismoa; Ignaziotar Lurralde); eskualde logikarekin bat egiten duelarik.
- Erakargarritasun puntu horien POSIZIONAMENDUA landu, hitz gakoaren kudeaketan oinarrituz eta Foru Aldundiak egindako esfortzuarekin koherentzian esaterako. .
- Esfortzu digital hau eragile tertziario multzoari aktiboki lotu.

EKINTZAK:

- Hortaz, hedapen plan birtuala garatuko da proiektuaren izaera eta honek maila informatibo nahiz parte hartzailean, bisitariak eta herritarren aldetik, izango duen inpaktua kontutan hartuta. Horrela, proiektuaren hedapenen eta parte hartzerako hiru alderdi aurkezten dira.
 - Web orri egitura eta plataforma
 - Sare Sozialak, proiektuaren hedapenerako lehenengo etapako kanal sozial egokiak
 - Imateka, irudien kanal zehatza
 - Posizionamendua

A) Web orria

Plataforma garapena: Tresna gomendagarriena kasu honetan, Wordpress edukien kudeatzailea da (MONRAGON KORPORAZIOA I edukien kudeaketarako sistema) ez delako inongo ezagutza informatiko ezta programatikorik behar eta plataforma bakarretik kanal guztiak retroalimentatzeko ahal izateko hedapeneko nahiz informazioko irizpideak guztiak biltzen ditu. Kudeatzaile honek web orriko edukia era sinplean zabaldu eta osatzeko aukera ematen du, horregatik hasiera egitura sinple bat proposatzen da, ondoren atalak zabaltzeko aukerarekin.

Plataforma mantenua: Hasieran, proiektuaren aurkezpen publikoan informazio eta arreta entzutetsua mantentzeko, taldeko pertsona bat prestatzea gomendatzen da. Horrez gain, eskema edo zuhaitz bat proposatzen da hasierako web orriaren egituraren garapena errazteko, horrela, etorkizunean beste plugging batzuekin inplementatzeko aukera zabalik geratzen da erabiltzaileen eskariaren arabera.

Plataforma egitura: Nabigazioari dagokionez web orri sinple bat proposatzen da: Menu Nagusia, Bigarren mailako Menua eta sare sozialen ikusgarritasunerako pluginak irudi garrantzitsuen aurkezpenarekin batera (taldek baloratu beharrekoa) pantailaren eremu zentrolean. (Aurrerago xehetasun ilustratiboa aurkezten da).

B) Sareak

Ebaluazioa I balorazioa

Denbora errealeko (*real time*) informazioa mantentzeko beharrezkoa da web orri eta sareen arteko interakzioa. Sare sozialak maneiatu eta kudeatzeko erraztasuna handia eta sinplea da WordPresen bitartez eta kontroleko paneletik bertatik plataforma guztien eguneratzea posiblea da baita ere. Dena den, behar ez diren kontuak aktibatzea ez da gomendagarria; egunerokotasunean arduratu eta sustatu ezin ditugunak alegia.

C) Imateka

Ebaluazioa I balorazioa

Telefonoaren erabilerak eta ikusten dena erakusteren ezaugarri parte hartzailek, parte hartze ia inkontzientea sortzen dute irudien hedapen kanaletan. Horrela, weborria estekatutako kanal bat edukitzeak, Flickr adibidez, web orriaren retroalimentazioa erraztu eta erabiltzaile sare bat sorrarazten du turistikoki interesgarriak diren eremuak erakutsiaz.

D) Posizionamendua

Ebaluazioa I balorazioa

Ikusgarritasun birtualari dagokionez, Web orri, Sareak, eta Imatekak ahalbidetu eta bermatzen dute bilaketarako motoreek posizionamenduaren alde lan egitea, izan ere, garrantzia eta albistearen arabera posizionatzeko informazioari dagokionez, “web helbideen” eguneratzea kontutan hartzen dute. Honela, informazioa sorrarazi edo partekatzen ez duen web orri bat ez da lehenengo posiziotan egongo, informazio eguneratua duten beste hainbat web orri badaude.

Posizionamendu honen balorazio eta azterketarako, kontutan hartuko da mantenimenduaren ardura edukiko duen pertsonaren ezagutza.

AURREKONTUA: 15.000,00€ (Neurrira eginiko web orrialde eta beharrezko programazioarekin hainbat hizkuntzatan 10.000,00€ izan litezke). Horri, kalitatezko irudiak eta Internet edo/eta Sare Sozial bidezko iragarkiak gehitu behar zaizkio. Eskaintza merkeagoak ere aurki daitezke, baina ez hain seguruak eta malgutasun gutxiagorekin.

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete

LEHENTASUNA: Altua

ADIBIDEAK:


{ <https://www.sansebastianturismo.com/es/>

{ <http://www.turismozarautz.com/>

{ <http://www.goieriturismo.com/>

WEB EGITURAREN ORIENTAZIOAREN XEHETASUNA

Gomendatutako WEB egiturari dagokionez, menuen presentazio tipologia gutxi gora behera eta erreferentzia gisa ondorengoa izango litzateke:



Menu orokorra (nagusia) Menú general (principal)

Menu hau nabigaziorako ardatz nagusia da eta proiektuaren informazio formalaren edukia du. Edukiadi dagokionez, ahalik eta era itxienean aurkeztea gomendatzen da (edukia aurrerago aldatu edo/eta zabaldu daiteke).

Menu nagusiaren adibidea:

- **Proiektua**
 - o Helburuak
 - o Erakunde Sustatzailea
 - o Lanaren faseak (hautazkoa proiektuaren bilakaera modu "gardenean" azaltzeko)
 - o [...]
- **Arrasate turismoa**
 - o Alde Zaharra
 - o Kooperatibismoa
 - o Eremu berdea
 - o [...]
- **Sareak / Parte hartu**
 - o Erabilagri dauden sare sozialen aurkezpena (zabaltzeko aukerarekin)
 - o News Letter (erregistratu diren erabiltzaileen informazio buletina)
 - o Iruzkin eremua (argitalpena baino lehenago mugatua)
 - o [...]
- **Informazioa / kontaktua**
 - o Kontaktua (Informazio eskaera Formularioa)
 - o Informazioa (bulegoa, telefonoa, kontakturako pertsona.)

[...]

Menu zentrala (home)

Menu honek proiektuaren informazio garrantzikoena du hiru blokeetan banandua. Irudi formatuan aurkezten da garrantzi bisuala erantsiz, azalpen testu txiki batek osatzen duelarik.

Eskuin aldeko Menua (menú dinamikoa)

Menu hau alderdi dinamikoa eta orrialdea bisitatzen dutenenen interakzioaren euskarri da, hau da, "Sareak" ataleko saila eta zuzeneko informazioa aurkezten du. Horrela, Facebook-eko "horman" zuzenean azalduko da menuan eta web orrialdetik bertatik interaktutu ahal izango da. Era berean, "Erabiltzaileen izen ematea" (news letter) atalean klik simple baten bitartez izen ematea automatikoa da.

7.2.- INFORMAZIOA

Informazio Materialen sorkuntza, bide eta euskarri desberdinen bidez gauzatuko da (paperezko liburuxkak, informazio panelak, on line tresnak); Aurretik deskribatutako Lan Ardatz multzoarekiko zeharkako elementuak dira. Horiek, diseinatutako komunikazio eta jomugako ospearekin koherenteak izango dira.

Baina materialetatik haratago, aipatzekoak dira Informazio Mekanismoak, eta batez ere Informazio Bulego bat sortu edo ez sortzeko aukeraren hausnarketa.

7.2.1.- INFORMAZIO PUNTUAK

DESKRIBAPENA: Lan irizpide bezala, *Turistak Informazio Bulegoak baino lehenagokoak* izatea iradokitzen da. Hau da, Arrasatek Informazio Turistikoko Bulegoa ezarriko du zentzu hertsian, gutxieneko ospea eta bere instalakuntza gomendatzen duten bisita kopuru minimora iristen denean.

Dena den, honek ez du esan nahi beste alderdi eta informazio mekanismo orokorrik landuko ez denik. Irizpide moduan, Mankomunitatearen erreferentzia puntua mantentzeaz gain, ondorengoa iradokitzen da.

EKINTZAK:

- Udal eremu turistiko zentriko edo/eta erakargarriak erabili (BAZ/SAC bulegoa) turistek informazio turistiko orokorra edo/eta informazio pertsonalizatua jasotzeko puntu bezala (aldez aurreko gutxieneko heziketa plana).
- Mekanismo errazak ezarri (pantaila digitalak edo informazio panelak puntu horietan); Alde Zaharraren kasuan azaldutako seinaleztapenn ahaleginaren osagarri.
- Eskualdeko liburuxka desberdinetan informazio puntu horiek txertatu, nahiz eta zentzu hertsian informazio bulegoak ez izan (turistarentzat mezu desorekatuak sor ez daitezen: esaterako, Eskoriatzak turismo bulegoa duela. Dena den, Arrasate ez dago erreferentzia zerrenda horretan).

AURREKONTUA: 18.000,00 €

MARTXAN JARTZEKO EPEA: 6 hilabete

LEHENTASUNA: Ertaina/Altua

ADIBIDEAK ETA HELBIDE INTERESGARRIAK:

